

# DIAGNOSTIKOA:

## EMAKUMEEN ETA GIZONEN EGOERA

ELGOIBAR

Egilea: MURGIBE SI

2008ko apirila

## AURKIBIDEA

1. SARRERA ETA METODOLOGIA.. .. .	5
2. EMAKUMEEN ETA GIZONEN EGOERAREN EZAGUTZA EDOTA KONPROMISO MAILA UDAL ARLOETAN ....	8
3. BERDINTASUNA UDAL ARLOETAN KUDEATZEKO PROZESUAK ETA GENERO-IKUSPEGIA ARLO HORIETAN EZARTZEKO MAILA. .. .. .	10
4. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA UDALEAN EZARTZEKO NEURRIAK.. ..	11
5. BERDINTASUNAREN EGOERA UDALEAN .. .. .	12
6. JARDUTEKO ARLO BAKOITZEKO EMAITZAK .. .. .	17
KULTURA ETA KIROL ARLOA .. .. .	18
HEZKUNTZA ARLOA.. .. .	23
LAN ARLOA .. .. .	27
GIZARTERATZE ARLOA .. .. .	36
HIRIGINTZA ETA INGURUMEN ARLOA .. .. .	46
OSASUN ARLOA .. .. .	51
7. EMAKUMEENTZAKO BOST PROPOSAMEN PREMIAZKOENAK ETA BEHARREZKOENAK. ..	54
ERANSKINAK.. .. .	56
- Adierazle-fitxak	
- Genero-ikuspegia udal arloetan ezartzeari buruzko galdetegia	
- Emakumeekiko topaketen gidioa	

## Taula-aurkibidea

1. taula. Elgoibarko emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko konpromisoa edota iritziak	9
2. taula. Lan arloa, sexuaren arabera (bereizketa horizontala)	12
3. taula. Beste erakunde batzuk	13
4. taula. Sexu eta arloaren araberako maila (bereizketa bertikala)	13
5. taula. Adina sexuaren arabera	14
6. taula. Udal plantillaren titulazioa	14
7. taula. Udal plantillaren antzinasuna	14
8. taula. Ikastaroak sexuaren arabera	15
9. taula. Lan lotura	15
10. taula. Seme-alaben kopurua	16
11. taula. Elgoibarko gazte/zaharren indizea 2006. urtean	16
12. taula. Liburutegian egindako jarduerak. 2007.	19
13. taula. <b>Elgoibarren dauden kirol elkarteak eta taldeak.</b>	21
14. taula. EAEko eta Gipuzkoako biztanleria lan bakoitzeko enplegu-tasaren jarduerari dagokionez. 2008ko 1. hiruhilekoa	28
15. taula. Lanean ari diren 16 urte eta gehiagoko biztanleak, lurralde eremuka eta jarduera-adarraren arabera. 2001. Elgoibar. (%)	28
16. taula. Lan-kontratuak, sexuaren eta ekonomi jardueraren arabera. 2008ko martxoa.	29
17. taula. 2008ko 1. hiruhilekoan izandako lan-kontratuak Elgoibarren, sexuaren eta jardueraren arabera. Guztizko datuak.	30
18. taula. Adinaren eta sexuaren araberako langabezia. Elgoibar. 2008ko 1. hiruhilekoa.	34
19. taula. Deba Barreneko gizarteratze zerbitzuan lagundutako pertsonak, sexuaren arabera. 2007	36
20. taula. Baliabide eskuragarri nagusiak: egoitza eta eguneko zentroetako plazak eta etxeko zerbitzuen atentzioaren ahalmena (2006).	37
21. taula. Egoitzako zerbitzuek besteen laguntza behar duten adinekoak babesteko eskainitako babesa (2006).	38
22. taula. Elgoibarko etorkinen jatorrizko herrialde nagusiak sexuaren arabera (%).	41
23. taula. Elgoibarko etxeko indarkeriaren biktimak adinaren arabera (2006-2007).	43
24. taula. Elgoibarko erasotzaileen eta biktimen jaiotze-tokia. 2006 eta 2007. urteak.	43

## Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa: Elgoibarko biztanleria-piramidea 2006. urtean	17
2. grafikoa: 16-44 urte bitarteko biztanleen jarduera-tasaren bilakaera (%)	27
3. grafikoa: lanean ari diren 16 urte eta hortik gorako biztanleak, jarduera-adarraren arabera. 2001. Elgoibar.(%)	29
4. grafikoa: Lan kontratuak sektoreka Elgoibarren. 2008Ko martxoa. Portzentajeak	31
5. grafikoa: Langabetuen bilakaera. Elgoibar. Martxoa. 2006-2007-2008	31
6. grafikoa: Lanbideko lan-eskatzaille aktiboak. Sexua. Debarrena. 2008ko 1. hiruhilekoa	32
7. grafikoa: Lanbideko lan-eskatzaille aktiboak. Adina eta sexua. Debarrena. 2008ko 1. hiruhilekoa	33
8. grafikoa: Lanbideko lan-eskatzaille aktiboak. Lan egoera eta sexua. Debarrena. 2008ko 1. hiruhilekoa	28
9. grafikoa: Tabakismoa sexuaren, adinaren eta landa-gunekoa izatearen edo ez izatearen arabera, 2002. (%)	52
10. grafikoa: Ohiko edaleak sexuaren, adinaren eta landa-gunekoa izatearen edo ez izatearen arabera, 2002. (%)	52
11. grafikoa: Obesitatea ( $Gmi \geq 30$ ) sexuaren, adinaren eta landa-gunekoa izatearen edo ez izatearen arabera, 2002 (%)	53

## 1. SARRERA ETA METODOLOGIA

Berdintasunerako edozein estrategia edo plan egin baino lehen, UDALERRIAK ETA UDALAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ARLOAN EGITEN DUENA ezagutu beharra dago.

Horretarako, emakumeek eta gizonek planaren etorkizuneko arlo bakoitzean duten egoerari eta posizioari buruz dauden datu eskuragarriak bildu dira, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren datuen ildotik doazenak, hots, KULTURA ETA KIROLA; HEZKUNTZA; LANA; GIZARTERATZEA; HIRIGINTZA ETA INGURUMENA; OSASUNA.

Informazioa biltzeko, aurreko arloei dagozkien 6 adierazle-fitxa izan dira abiapuntua, MURGIBEK eginak EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren eragin-adierazleetan oinarrituta daudenak.

Ildo horretan, hauexek izan dira informazioa biltzeko bitartekoak:

- Goian aipaturiko adierazle-fitxak.
- Udaleko langileen lan egoerari buruzko fitxa, honako hauen gaineko datuekin: arloa, postua, eskaturiko titulazioa, titulazio-taldea, norakoaren osagarria, lan-lotura eta lanaldi mota... (Barneko plana egitean burutua).
- Genero-ikuspegia udaleko arloetan ezartzeari buruzko galdetegia.
- Udalerriko emakumeekin elkartzeko taldearen gidoia.

Txostenak, memoriak, azterlanak, estatistikak eta udalerriko gizarte eragileen zein pertsonal teknikoaren eta politikoaren iritziak erabili dira egiaztapena egiteko. Hauxe da bildutako dokumentuen zerrenda, baita erabilitako beste iturri batzuei dagokiena ere:

Diagnostikoa egiteko erabilitako dokumentuak eta iturriak
Deba Barreneko genero-indarkeriari buruzko diagnostikoa. 2008ko apirila.
Elgoibarren bizi diren etorkinei buruzko azterlana eta diagnostikoa. 2008ko otsaila.
Elgoibarko ikastetxeetako ikasle, irakasle eta zuzendaritza taldeei buruzko datuak, sexuaren arabera banatuta (B.H.I. eta IMH).
Elgoibarko kale-izendegiko datuak.
Udalerriko ikastetxeei buruzko datuak, Berritzeguneak emandakoak.
Kultura arloaren adierazle-fitxa beteta.
2007an trebakuntza eta enpleguaren, adinekoen eta aukera-berdintasunaren arloetan eginiko jarduketaren deskribapenari buruzko memoria. Debegesa.
INEMren enpleguari buruzko datuak.
EUSTATen enpleguari buruzko datuak.
Osakidetzaren osasun zentzuei buruzko informazioa.
Lan Garapenerako Agentziak emandako informazioa (Debemen).

Etxeko indarkeriari eta sexu-askatasunaren delituei buruzko datuen txostena Deba, Elgoibar, Mallabia, Mendaro, Mutriku eta Soraluzen.
EGAILAN.
Agenda 21i buruzko argitalpenak. Debegesa.
Udalaren web gunea: <a href="http://www.elgoibar.org">www.elgoibar.org</a> .
Elgoibarko udal liburutegiari buruzko datuak.
Mutrikuko enpleguari eta emakumeei buruzko diagnostikoan eta ekintza-planean trebatzeko ikastetxeei buruzko datuak.2007.
Baseri inguruarekin lotutako datuak (Debemen).
Baseri inguruko emakumeekin lotutako datuak Hitzez-en (emakume baserritarren elkarteak).
Euskal baserriko emakumeei buruzko txostena 2004.
<a href="http://www.landagipuzkoa.org">www.landagipuzkoa.org</a> .
Euskadiko 2002-2010eko Osasun Planaren 2006ko txostena.
EAEren osasunari buruzko inkesta 2002.
Kirolen Udal Patronatuaren datuak.

Hauxe izan da erabilitako estrategia metodologikoa:

1. Koordinazio egiturako pertsonal politiko eta tekniko arduradunak bildu dira, burutu beharreko prozesua azaltzeko eta udal arlo bakoitzaren araberako genero-adierazleen fitxak banatzeko.
2. Informazioa MURGIBERi bidali zaio.
3. Genero-ikuspegia udal arloetan ezartzeari buruzko galdetegia pasatu da, eta arlo guztiek erantzun dute.
4. Udalerriko emakumeak elkartzeko talde bat egin da, emakumeek hainbat eremutan dituzten beharrak ikusteko.
5. Elgoibarko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoaren dokumentua egin da, udalerriko berdintasunerako politikak bultzatzeko egiturekin kontraturikoa.

## TOPAKETAK EMAKUMEEKIN

### Helburuak

1. Deba Barreneko udalerrietan abiarazitako berdintasun zerbitzua ezagutaraztea.
2. Udalerriko emakumeek esku hartzeko eta Berdintasun Planean ezarritako ardatz estrategikoei dagokienez dituzten beharrak biltzea.
3. Emakumeen parte-hartzea sustatzea berdintasuna eraikitzeko.

### Metodologia

Eztabaida-taldea izan da emakumeek udalerrietan dituzten beharrak biltzeko emakumeekin izandako topaketetan erabili den metodologia. Hasieran, udalerrri guztietan dinamika bera erabili nahi izan bada ere, talde bakoitzaren beharretara egokitu da dinamika (partaideen kopurua, topaketaren iraupena, etab.).

Landu nahi izan diren eremuetan lan egiten edo parte hartzen duten udalerriko emakume nabarmenen parte-hartzea lortu nahi izan da (EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Planean zehaztuak). Alde batetik, udalerrian lan egiten duten taldeetan parte hartzen duten emakumeak gonbidatu dira. Bestetik, hainbat arlotan lan egiten duten udalerriko beste batzuk identifikatu dira hala nola hezkuntzan, enpleguan, osasunean, gizarte-kulturako animazioan, etab.

Udalerrri bakoitzean bultzada emateko udal arteko egiturak osatzen dituzten pertsonen laguntzaz identifikatu dira.

Hiru udalerrietan (Deba, Mutriku eta Elgoibar) abiarazitako Berdintasun Zerbitzuaren aurkezpenarekin hasi dira eginiko topaketa guztiak. Jarraian, topaketa bera aurkeztu da, baita erabili beharreko metodologia eta helburuak ere. Ondoren, esku hartzeko arloak aurkeztu dira, udalaren Berdintasun Planean ezarriko direnak hain zuzen: Kultura, hezkuntza, gizarteratzea, osasuna eta hirigintza eta ingurumena. Eta jarraian, planaren zeharkakotasuna ezarri duten ardatzak aurkeztu dira: mainstreaming-a, emakumeen jabetzea eta parte-hartzea, bateratzea eta baterako erantzukizuna eta emakumeen kontrako indarkeria.

Eztabaida bideratzeko, gidoi bat jarraituz egin izan da lan, eta gidoi horretan, behar garrantzitsuetatik 3 gidoi nabarmendu nahi izan dira udalerrian bizi edota lan egiten duten emakumeen ikuspegitik, hain zuzen udalerrri bakoitzeko Aukera-berdintasuneko Planak zein diagnostikoak izango duten arlo bakoitzean.

## Garapena

Elgoibarren, 17 emakume hartu dute parte eta kopuru handia denez gero, pertsonak 4 taldetan banatzea erabaki da. Talde bakoitzak, gidoi bati jarraituz betiere, taldean bertan planteaturiko arloetako zenbaiti buruzko eztabaida egingo du. Hala, bada, talde batek kulturaren, hedabideen eta kirolaren gaia landuko ditu. Beste talde batek, berriz, enplegua eta hezkuntza izango ditu ardatz. Hirugarren taldeak hirigintza, ingurumena eta osasuna. Eta azkenik, laugarren taldeak zailtasunak dituztenak eta gazteak.

Eztabaidarako denbora bat mugatu eta ondoren talde bakoitzak ikusitako beharrak aurkeztuko dizkiete besteei. Azalpenak eman ondoren, ekarpen edo komentarioren bat egiteko posibilitatea eskainiko zaie gainerako partaideei.

Topaketan parte hartzen duten emakumeen profila askotarikoa da adinaren zein jatorriaren aldetik. Taldetan antolaturiko emakumeek hartzen dute parte hala nola Haizea Emakume Taldeak edo Ahotsak taldeak (euskal gatazka konpontzeko bidean aurrera egiteko antolaturiko hainbat alderdi politikotako emakumeak biltzen dituena), sindikatuetako emakumeek, abokatuek, zainzaileek, saltzaileek, ekonomialariek, ingurumeneko teknikariek, irakasleek, etab. Egungo legegintzaldiko zinegotziak ere bildu dira bertan, gizarte mugimenduetako emakumeak hala nola Gazte Asanbladakoak, aisialdi elkartekoak, etab. Gainera, tokiko hedabide batean lan egiten duen pertsona bat, udalerriko Dendarien

Elkarteko emakume ordezkari bat eta Jubilatuen Etxeko langile bat ere badira bertan. Beraz, hainbat arlotako emakumeak dira, gehienbat lan-merkatuko langileak, profil zabalekoak adinari dagokionez, eta gehienak hezkuntza ertain edota altukoak.

Bidezkoa da esatea udalerrian gazteriarekin lotutako arloetan lan egiten duten pertsonak (Gazteentzako informazio bulegoa, Sexologia Zerbitzua, Gazteleku, Udalaren Gazteria Arloko teknikaria) ezin joan daitezkeela topaketara. Horregatik, gidoi bat bidaltzen zaie ekarpenak egin ditzaten, garrantzitsutzat hartzen baitira. Hala, lau gidoi batu dira guztira.

Azkenik, diagnostiko honek DEBEGESaren koordinazio tekniko eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntza izango duela esan beharra dago. Bestalde, bertan parte hartu dutenei eskerrak eman nahi dizkiegu, Udalaren beraren pertsonalari, gizarte eragileei eta bereziki topaketetan parte hartu duten emakumei.

## **2. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN EZAGUTZA EDOTA KONPROMISO MAILA UDAL ARLOETAN.**

Udaleko langileen ezagutza neurtzeko, galdetegi bat eman zaie udal arloetako arduradun guztiei:

- 1.- Kultura, irakaskuntza eta jaiak.
- 2.- Euskara
- 3.- Hirigintza, Ura, Argindarra, Lanak eta Ingurumena.
- 4.- Kontu bereziak, Ogasuna eta Ekonomia
- 5.- Barnekoa eta Pertsonala
- 6.- Gizarte Prestazioa eta Osasuna.
- 7.- Gazteria

Genero-ikuspegia udal arloetan ezartzeari buruzko galdetegia erantzun dute aipaturiko horiek arlo guztiek.

Galdetegia erantzun duten arlo bakoitzeko 7 arduradunetatik 5 teknikariak dira, eta Esku-hartze eta Ongizate Arloaren kasuan, zinegotziak izan dira partaideak. Zazpi kasuetan emakumezkoak dira profesionalak.

Euskarako teknikariak zein kulturako teknikariak zazpi urte baino gehiago daramatzate lanpostuan, eta Ongizate eta Esku-hartzeko zinegotziek eta Barnekoak urtebete baino gutxiago egin dute lanpostuan. Gazteria eta Hirigintza eta Ingurumeneko teknikariak, berriz, urtebete eta hiru urte bitartean izan dira lanpostuan.

Galdetegia erantzun duten hiru arloetan, pertsonal politikoak trebakuntza motaren bat egin du Emakumeen eta Gizonen berdintasunaren eremuan, zehazkiago Gazteria, Esku-hartze eta Ongizateko

arlotan. Kultura Arloan, ordea, ez da izan horrelako trebakuntzarik, eta gainerako hiru arlotan arduradunak dio ez duela horren berririk.

Pertsonal teknikoari/administratiboari/langileei dagokienez, berdintasunaren inguruko trebakuntza jaso da 4 arlotan, Euskara eta Ongizate arlotan izan ezik. Hirigintza eta Ingurumen Arloen kasuan, ez dago trebakuntza jaso izanaren berri.

### 1. TAULA: Elgoibarko emakumeen eta gizonen berdintasunaren gaineko konpromisoa edota iritziak

	Euskara	Kultura	Gazteria	Ongizatea	Barnekoa	Hirigintza eta ingurumena	Esku-hartzea
<b>Planaren ezagutza-maila</b>	Gutxi	Gutxi	Gutxi	Pixka bat	Gutxi	Gutxi	Gutxi
<b>Arloko pertsonalak planaz duen ezagutza-maila</b>	Ezer ez	Ezer ez	Gutxi	Gutxi	Gutxi	Gutxi	Ezer ez
<b>Udal planen eraginkortasuna</b>	Pixka bat	Ezer ez	Nahikoa ondo	Ezer ez	Pixka bat	Nahikoa ondo	Pixka bat
<b>Berdintasuna ezartzeko moduari buruzko ezagutza</b>	Pixka bat	Pixka bat	Nahikoa ondo	Ezer ez	Pixka bat	Nahikoa ondo	Gutxi
<b>Legea ezagutzea</b>	Gutxi	Pixka bat	Pixka bat	Pixka bat	Nahikoa ondo	Gutxi	Gutxi

Taulan ikus daitekeenez, ertaina da berdintasunerako konpromisoa, kasurik gehienetan hauexek izan direlako esleituriko emaitzak: "Gutxi" eta "Pixka bat".

Baliorik altuena duten arloak Gazteria eta Hirigintza eta Ingurumena dira, zeren arlo horietan uste baita udal planak nahikoa eraginkorrak direla eta nahikoa ezagutza dagoela berdintasuna ezartzearen inguruan. Esku-hartzearen Arloa da baliorik baxuenak dituen, ordea.

Puntuaziorik txikiena duen alderdia pertsonalaren ezagutza-maila da, zeren 7 arloetatik 3k uste izan baitu arloetako pertsonalaren ezagutza-maila hutsa dela. Eta gainerako 4 arloek diote ezagutza txikia dela.

Honelaxe definitu dute "genero" kontzeptua galdetegia erantzun duten arloetako 5 profesionalak:

- Gizonak eta emakumeak bereizteko gizarateak inposaturiko rolak dira.
- Gizona edo emakumea izatea.
- Sexua.
- Pertsonaren gizarate ezaugarria.
- Gizakiaren sexua, hots, gizona edo emakumea izatea.

"Ekintza positiboa" kontzeptua ere zehaztu da:

- Diskriminazioa duten pertsonen eskubideen alde egiteko buruturiko estrategia edo neurria.
- Emakumearen alde planifikaturiko ekintza bat.

- Zuzendaritzaren konpromisoa eta borondatea.
- Aukera-berdintasunik ez duten pertsonentzako ekintza planifikatua.
- Gizakia izaten laguntzeko buruturiko ekintza.

Kultura eta Barne Arloetako profesionalak ez dute aipaturiko bi kontzeptu horietako bat bera ere definitu.

Ikusten denez, aukera-berdintasunaren oinarritzko bi kontzeptu horiek gutxi gorabehera ezagutzen dira baina ez da ezagutza zehatza.

### **3. BERDINTASUNA UDAL ARLOETAN KUDEATZEKO PROZESUAK ETA GENERO- IKUSPEGIA ARLOETAN EZARTZEKO MAILA.**

Aipaturiko galdetegiaren bidez, ondoko aldagai hauek neurtu nahi izan dira arlo bakoitzean:

- Datuak sexuaren arabera banatuta agertzen diren.
- Emakumeen beharren gaineko diagnostikoa diseinatu baino lehen arauen edo jarduketaren bat dagoen.
- Emakumeen egoeran edo baldintzetan eragin txarra duten ekintzak aldatzen edo kentzen diren.
- Berariaz emakumeen beharrak, baldintzak eta posizioak betetzeko programak eta ekintzak egiten diren.
- Jarduketa batek edo arau batek emakumeen egoeran eta baldintzetan duen eragina ebaluatzen den.
- Emakumeek edota emakume-taldeek jarduketan plangintzan parte hartu duten.
- Dokumentuetan hizkeraren eta irudien erabilera ez sexita egiten den.

Soilik Gazteria eta Kultura Arloetan diote datuak sexuaren arabera banatuta dituztela. Kultur Arloan zein Gazterian Arloan, jardueretako partaidetzari buruzko datuak dira sexuaren arabera banatuta daudenak. Gazteria Arloaren kasuan zehazten denez, horrela sailkatzen dira ere ludotekako bazkideekin, Gaztelekuko erabiltzaileekin, etab. lotutako datuak.

Galdetegia erantzun duten arloetako batek ere ez du emakumeen beharren diagnostikoaren diseinua baino lehen jarduketaren edo arauen bat. Emakumeen egoeran edo baldintzetan eragin txarra duten ekintzak ez dira aldatu edo kendu aipaturiko arloetako batean ere.

Soilik Gazteria eta Hirigintza Arloetan egiten dira berariaz emakumeen beharrak, baldintzak eta posizioak betetzeko edota emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko programak eta ekintzak arloaren jarduketa-eremuaren barruan. Gazteria Arloa da jarduketa edo arau batek emakumeen egoeran eta baldintzetan duen eragina ebaluatzen duen bakarra.

Gazteria Arloan, Kultura Arloan zein Hirigintza eta Ingurumen Arloan, emakumeek parte hartu dute haien arloan buruturiko jarduketan plangintzan. Gazteria eta Kultura Arloen kasuan, azken urtean

emakumeen bi partaidetza-gunetan burutu dira jarduketak. Hirigintza eta Ingurumen Arloen kasuan, emakumeek parte hartzeko guneak hainbat foro, bilera, etab. izan dira.

Galdetegia erantzun duten arlo guztietan diote hizkera ez sexista erabiltzen dutela irudietan zein dokumentuetan, Esku-hartze Arloan izan ezik. Arlo horretan ez da erabiltzen, eta Barne Arloko arduradunak ez daki horrelako hizkera erabiltzen den ala ez.

Euskara, Gazteria eta Hirigintza eta Ingurumen Arloek zehaztu egin dute zein dokumentutan erabiltzen den hizkera ez sexista; gainerakoek ez dute erantzun galdera hori. Hauexek dira dokumentuak: kartelak, orriak, prentsa-oharrak, gurasoentzako oharrak, Elgoibarko web orriaren agenda 21en, barne dokumentuetan...

Genero-politikak abiarazteko beste alderdi gako bat aurrekontua da. Ildo horretan, arlo guztiak bat datoz esatean, Kultur Arloa izan ezik, ez dagoela aurrekonturik emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko.

#### **4. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA UDALEAN EZARTZEKO NEURRIAK.**

Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko 4/2005 Legearen 10. artikuluan ezarrita dagoenez, foru eta tokiko administrazioek, euren burua antolatzeko eskumenen eremuan betiere, haien egiturak egokitu behar dituzte halako moldez non egitura horietako bakoitzean emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatzeko, aholkuak emateko, programatzeko eta ebaluatzeko ardura izango duten erakunde, organo edo administrazio-unitate bat egongo den gutxienez, betiere administrazio horien lurralde-organo egokietan.

2006an, Deba Barrean Emakumeen eta Gizonen BENETAKO berdintasuna lortzeko neurriak diseinatzeko PROZESUA hasi zen, eta Udalak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana 2007 – 2008 onetsi zuen. Plan hori Deba Barreneko Mankomunitateko beste lau udalerrirekin batera egin zen (Deba, Soraluze, Mallabia eta Mutriku), baita DEBEGESAren ere (Eskualdearen Tokiko Garapenerako Agentzia).

Arlo eta ardatz hauek ditu planak:

Arloak:

- Sentsibilizazioa eta trebakuntza.
- Komunikazioa.
- Emakumeen eta gizonen partaidetza.
- Udalak esku hartzeko dituen tresnak.

Ardatzak

- Mainstreaming-a
- Jabetzea
- Bateratzea

- Emakumeen kontrako indarkeria

Hortik abiatuta, Berdintasuna Bultzatzeko Egitura bat sortu zen, Ogasuneko zinegotziak, Gazteriako teknikariak, DEBEGESAko teknikariek eta generoan espezializaturiko laguntza teknikoak osatuta dagoena. 2008az gero, berdintasunerako teknikari bat dauka Udalean bertan, astean bi egunetan, guztira 10 ordutan.

Ez dago udaleko arlo guztietako pertsonal politikoak edota pertsonal teknikoak osaturiko udal barneko koordinazio-egiturarik berdintasunarekin lotutako ekintzen jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

## 5. BERDINTASUNAREN EGOERA UDALEAN

Atal honetan, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Barne Diagnostikoa* egiteko informazioa azalduko da. Diagnostiko hori 2006an langileei buruz bildutako datuekin egin zen eta diagnostiko honetarako berrikusi zen.

Sarrera gisa, ondoko azterketa-arlo hauek ezarri dira honelaxe:

1. Langileen ezaugarriak
2. Erakundean sartzea
3. Lanbide-karreraren trebakuntza eta garapena
4. Lan-baldintzak
5. Bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzea

### 1. Langileen ezaugarriak

Guztira 60 pertsona daude Udalaren plantillan (23 emakume eta 37 gizon), eta honako proportzionaltasun hau dago: %38,3 emakumeak dira eta %61,7 gizonak.

Langileen barneko diagnostikoa egiteko lehen urratsa bereizketa bertikala eta horizontala aztertzea izan da. Botere harremanak erakusten ditu bereizketa bertikalak, baita batzuk eta besteak botereari dagokionez duten kokapena ere; eta horizontalak, berriz, laneko arlo berean zein egoeratan dauden eta desberdintasun garrantzitsuren bat dagoen.

Hala, bada, lehen taulak Udalaren arloak eta emakumeek eta gizonak arlo bakoitzean duten ordezkartza erakusten ditu:

**2. taula. Lan arloa sexuaren arabera (bereizketa horizontala)**

Arloa	N	Emakumeak		%P	Gizonak		%P
		n	%n		n	%n	
Idazkaritza	6	4	17,4	66,7	2	5,4	33,3

Gizarte ongizatea	3	3	13	100	-	-	-
Kultura	6	4	17,4	66,7	2	5,4	33,3
Euskara	2	2	8,7	100	-	-	-
Esku-hartzea	9	4	17,4	44,4	5	13,5	55,6
Gazteria	1	1	4,4	100	-	-	-
Udaltzaingoa	19	2	8,7	10,5	17	46	89,5
Hirigintza eta zerbitzuak	14	3	13	21,4	11	29,7	78,6
GUZTIRA	60	23	100	38,3	37	61,7	100

Aurreko taulan ikus daitekeenez, emakumeak dira zenbait arlotako langile bakarrak hala nola Gizarte Ongizatean, Euskaran eta Gazterian. Baina guztizko langile kopuruaren %38-%62ko proportzionaltasunari jarraituz nabarmentzen denez, emakumeen presentzia oso txikia da zenbait arlotan, Udaltzaingoa eta Hirigintzan adibidez. Guztira %55 emakumeak dira udaleko langile guztien kopuruan.

Emakumeek eta gizonak beste udal zerbitzu batzuetan duten presentzia udaleko guztizko langile kopuruan dagoenaren antzekoa da.

### 3. taula. Beste udal erakunde batzuk

SEXUA	Arloa
Emak.	Egoitza
Gizona	Kirol Patronatua
Emak.	

Hala ere, emakumeak eta gizonak zein arlotan kokatzen diren jakin behar bada ere, beste gauza bat ere jakin behar da: arlo horietan nola dauden lanbide-kategoriaren arabera:

### 4. taula. Sexuaren eta udal arloen arabeko maila (bereizketa bertikala)

MAILA	Emakumeak	Gizonak
24		<ul style="list-style-type: none"> <li>Idazkaritza</li> <li>Esku-hartzea</li> </ul>
21		<ul style="list-style-type: none"> <li>Esku-hartzea</li> <li>Hirigintza</li> </ul>
15	<ul style="list-style-type: none"> <li>Esku-hartzea</li> <li>Kultura</li> </ul>	
14		<ul style="list-style-type: none"> <li>Udaltzaingoa</li> <li>Esku-hartzea</li> </ul>
13	<ul style="list-style-type: none"> <li>2 Ongizatea</li> <li>Euskara</li> </ul>	
12	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hirigintza</li> <li>Gazteria</li> </ul>	
11	<ul style="list-style-type: none"> <li>2 Idazkaritza</li> <li>2 Kultura</li> <li>Euskara</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>3 Polizia</li> <li>2 Hirigintza</li> <li>Hirigintza</li> </ul>
10	<ul style="list-style-type: none"> <li>Polizia</li> <li>2 Esku-hartzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>11 Polizia</li> <li>Esku-hartzea</li> </ul>
9	<ul style="list-style-type: none"> <li>Esku-hartzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Esku-hartzea</li> </ul>

	• 2 Idazkaritza	• Idazkaritza
	• Ongizatea	• 2 Polizia
	• Polizia	
	• Hirigintza	
	• Kultura	
8	• Hirigintza	• 7 Hirigintza
6		• Kultura
5		• Kultura

Taula horretan ikusten denez, mailarik altuenetan emakumeek presentzia txikiagoa dute gizonak baino eta maila jaitsi ahala, ordea, presentzia nabarmenagoa dute.

Ildo horretan, interesgarria izango litzateke zeren arabera den benetan esleituriko maila, egoeraren irakurketa egokia egin ahal izateko generoaren ikuspegitik.

Bestalde, langileen adina beharrezkoa da erakundea nolakoa den erakusteko argazki orokorra egin ahal izateko eta, hala, adin-taldean beharretara egokitu ahal izateko.

#### 5. taula. Udal langileen eta beste zerbitzu batzuetako langileen adina, sexuaren arabera

ADINA	Emak.	Gizonak
20-29	3	2
30-39	8	9
40-49	10	15
50-59	2	10
60-69	-	2
GUZTIRA	25	37

Plantillako gehienak 30 eta 49 urte bitarteko adin-tartean biltzen dira. 20 eta 29 urte bitarteko langileen portzentajea ere altua da antzeko beste erakunde batzuekin alderatuta.

Titulazioari dagokionez, langile gehienak D eta E mailetan biltzen dira, eta oso kopuru txikia da B eta C mailetakoa, emakumeen zein gizonen kasuan. Kategoriarik altuenean, A kategorian, gizonak daude bakarrik. Interesgarria izango litzateke titulazio mailarik txikienetan "ginkualifikazioa" deritzona ote dagoen aztertu ahal izatea.

#### 6. taula. Udal langileen titulazioa

TALDEA TITULAZIOA	Emak.	Gizonak
A	-	3
B	4	1
C	6	3
D	12	20
E	1	10
GUZTIRA	23	37

#### 1. Erakundean sartzea

Antzinasua da pertsonak Udalean sartzea aztertzeke moduetako bat. Elgoibarren kasuan, azken sartzeei buruzko azalpen-daturik ez dagoenez, antzinasuna aztertzea erabaki da, azterketa honetan harago joan ahal izateko.

**7. taula. Plantillaren antzinasuna**

URTEAK	Emak.	Gizonak
0-5	5	5
6-10	2	2
11-15	2	4
16-20	7	8
21-25	3	7
26-30	3	3
> 31 urte	-	5
EE	1	3
GUZTIRA	23	37

Sartze berriei dagokienez, emakumeen eta gizonen berdintasuna %50ekoa da; datu positiboa da erakundearentzat.

## 2. Trebakuntza eta lanbide-karreraren garapena

Udaleko langileek lanpostuarekin lotutako etengabeko trebakuntzari buruzko saioetara joateko posibilitatea dute. Trebakuntza mota guztien artean, 4 kategoria nagusitan bildu dira guztiak, azterketa osoagoa egin ahal izateko: jardunaldiak/kongresuak; Espezialitatea (lanpostuarekin lotuta zuzenean), Kudeaketa eta Kalitatea.

Taula begiratzera eta aztertzera, kontuan izan behar da ez dagokiola ikastaroetan parte hartu duten emakumeen eta gizonen kopuruari, baizik eta saio horietara joan diren aldi kopuruari.

Ikastarorik ohikoenak kudeaketarekin eta lanpostuarekin berarekin lotutakoak dira.

**8. taula. Ikastaroak, sexuaren arabera**

IKASTARO MOTA	Emak.	Gizonak
Jardunaldi/Kongresuak	3	3
Espezialitatea	8	15
Gestioa	15	17
Kalitatea		1

## 3. Lan baldintzak

Udaleko lanaldi mota nagusia lanaldi osoa da, baina lanaldi murriztua duen emakume bat dago.

Emakumeen banaketa zati berdintsuetan dago funtzionarioen eta lan-itunpeko kontratuko langileen artean, baina gizonen presentzia handiagoa da funtzionarioen artean.

**9. taula. Udal langileen eta beste udal erakunde batzuen lan-lotura**

Mota	N	Emakumeak		%P	Gizonak		%P
		n	%n		n	%n	
Funtzionarioak	33	10	43,5	30,3	23	60,5	69,7
Lan-itunpekoak	27	13	56,5	48,1	14	36,8	51,9
Finkoa	1				1	2,7	100
GUZTIRA	63	23	100	36,5	38	100	63,5

#### 4. Bitzita pertsonala, familia eta lana bateratzea

Udaleko pertsonalaren seme-alaben kopuruari dagokionez ikus daitekeenez, emakumeek seme-alaba gutxiago dituzte, eta gizonen seme-alaben proportzioa handiagoa da.

Egokia izango litzateke gizonak aitatasun-baimena hartzera bideratzea planaren neurriak.

**10. taula. Langileen eta beste udal zerbitzuetako langileen seme-alaben kopurua**

SEME-ALABEN KOP.	Emakumeak	Gizonak
0	12	9
1	2	8
2	10	14
3	-	4
NC	1	5

Bestalde, bitzita pertsonala, familia eta lana bateratzearekin lotutako gaiak jorratu ahal izateko ordutegi malgua dutela esan behar da.

## TOPAKETAK EMAKUMEEKIN

### Udalaren eta herritarren arteko harremanak

- Udal zerbitzuen ordutegi zabalagoak egin beharra nabarmentzen da, gizarte zerbitzuena adibidez.

- Udalak ahaleginak egin behar dituela planteatzen da herritarrek udalerrian parte har dezaten. Hori lortuko litzateke egiten ari diren proiektuen eta jardueren gaineko informazio gehiago emanda herritarrei, zeren eta herritarrek hedabideetatik jasotzen baitute soilik informazioa, edo hauteskundeetan.
- Udalerriko gazteek nahi dutena kontuan hartzen ez dela aipatu da.
- Komentatu denez, Udalak laguntza eman eta inplikatu egin behar du emakumeekin lotutako gaiekin, emakumeen ekimenak lagunduz eta bultzatuz.
- Emakumeen elkarten eta Udalaren arteko harremanak oso txikiak direla ikusten da; beraz, bultzatu egin beharko lirateke harremanak.
- Berdintasun Planari dagokionez, prozesua koordinatzeko pertsona bat egotea eskatzen da, gaiak bideratu ditzan. Eta Plana aurkezteko eguna berezia izatea eskatzen da, herritar guztiei irekia eta gonbidatu bereziak izango dituen.

## **6. JARDUTEKO ARLO BAKOITZEKO EMAITZAK**


### **ELGOIBAR UDALERRIAREN INFORMAZIO OROKORRA**

#### **BIZTANLERIA**

Elgoibarrek 2006. urtean 10.767 biztanle zituen, eta horietatik 5.360 emakumeak eta 5.407 gizonak ziren.

Ondoko grafikoan ikus daitekeenez, emakumeek gizonak gainditzen dituzte 0-4 urteko adin-tarteei (250 neska eta 229 mutil), 10-19 urteko adin-tarteei eta 65 urtetik gorakoei dagokienez. Bidezkoa da nabarmentzea 20 urtetik 65 urtera bitartean (lanean jarduteko urteak) gizonak emakumeak baino gehiago direla Elgoibarren. Talderik ugariena 30-34 urteko gizonena da; izan ere, 10.767 pertsonako biztanleriatik 541 gizonetzkoak dira.

### **1. GRAFIKOA: ELGOIBARKO PIRAMIDEA 2006. URTEAN**



Iturria: Geuk egindakoa, Eustaten datuekin

90etik gora

GIZONEZKOAK / EMAKUMEZKOAK

Gazteen indizeari dagokionez, ez dago desberdintasunik gizonen eta emakumeen artean, ondoko taulan ikus daitekeenez, baina emakume gazteen indizea (%15,48) gizonezkoena (%15,09) baino altuagoa da. Hala eta guztiz ere, lehenago komentatu denez (gehienak emakumeak dira 65 urtetik gora), desberdintasunik ikus daitezke adinekoen artean. Adineko emakumeak askoz gehiago dira adineko gizonak baino. Emakume zaharren indizea %24,25ekoa da, Elgoibarko guztizkoa baino hiru puntu gaineratik (%21,00), eta ia zazpi puntu gizonezkoen indizearen gaineratik (%17,77). Bestalde, adinekoen artean emakumeak dira nagusi, haurren eta gazteen kasuan ia ez dago desberdintasunik eta helduaroan (20-65 urtekoak) emakumeak baino gizon gehiago daude Elgoibar udalerrian.

#### 11. TAULA: ELGOIBARKO GAZTE ETA ZAHARREN INDIZEA 2006. URTEAN

	Emakumezkoak	Gizonezkoak	GUZTIRA
Gazteen indizea	15,48	15,09	15,29
Adinekoen indizea	17,77	24,25	21,00

Iturria: Geuk egindakoa, Eustaten datuekin

## KULTURA ETA KIROL ARLOA

Kultura eta Kirol Arloan, kultur elkarteak eta elkarte gastronomikoak aztertuko dira kulturaren duten parte-hartzea dela-eta. Udalerrian kultur ekintzak egiteko dauden ekipamenduak ere azalduko dira. Udal liburutegiaren kasuan, bazkideen kopurua islatzen da sexuaren arabera banatuta, baita zentro horretan

buruturiko ekintzak ere. Gazteriaren Udal Zerbitzua ere aipatzen da, eta horren lana zein den eta burutzen dituen jarduerak ere azalduko dira. Kirolaren eremuari dagokionez, Arlo horretan udalerrian dauden kirol instalazioak eta taldeak islatzen dira.

Elgoibarrek askotariko kultur jarduerak, instalazioak eta elkarteak ditu, kultura udalerrian sustatzeko asmoz. Kulturako eta aisialdiko 30 elkarte daude. Elkarte horietan, oso jarduera desberdinak burutu dira; izan ere, altzarien zaharberritzea, espeleologia, zeramika, argazkigintza... lantzen dituzte, eta beste batzuetan, aldiz, euskal kulturarekin, dantzarekin, koroarekin, antzerkiarekin, etab. lotutako jarduerak egiten dira.

Hauexek ditugu elkarteetako batzuk:

- **Haize Emakume Taldea:** 1995ean sortu zen. Gaur egun, 112 bazkide ditu, eta 7 emakume dira, lan handia egiten dutenak. Bazkide bakoitzarengandik jasotzen dituzten kuotekin (6 euro) funtzionatzen dute, baita Elgoibarko Udalak eta EMAKUNDEk ematen dizkieten diru-laguntzekin ere. Garapen pertsonalari, sukaldaritzari, literaturari eta kakorraz-lanari buruzko ikastaroak egitea da haien jarduera nagusia. Gainera, Ongarrirekin batera (zinema elkarte) film-proiektzioak antolatzen dituzte. Emakumeen batez besteko adina 40 urtekoa da.
- **Gazte Asanblada**
- **Emakume Gazteen Mugimendua**
- **Txankakua Merkatari Elkarte:** 1992an sortutako dendarien elkarte bat da. Gaur egun 49 bazkide ditu, eta emakume bat da presidentea. 7 pertsonak osatzen dute batza, horietako 6 emakumeak.
- **Ahotsak:** hainbat alderdi politikotako emakumeek eraturiko talde bat da, bakearen alde (Emakumeen ahotsak bakerako) eta euskal gatazka konpontzeko lanean diharduena. Elgoibarren 5 emakume daude gutxi gorabehera talde horretan.

Kultur elkarteaz gain, udalerrian 11 elkarte gastronomiko daude, eta udalerrian dauden elkarte horietatik guztietatik, 10 elkarteko buruak gizonetzkoak dira eta ez dakigu beste elkartearen burua gizona edo emakumea den.

Udalerriko kulturaren arloarekin lotutako hainbat ekipamendu eta erakunde daude, hala nola:

-**Inazio Bereziartua musika eskola.** Eskola horrek 23 irakasle eta 475 ikasle ditu.

-**Udal liburutegia** neguan 9.00etatik 12.45era eta 16.00etatik 20.15era zabaltzen da, eta udan 8:00etatik 13:45era, astelehenetik barikura. Elgoibarko udal liburutegiak 3.429 bazkide ditu, eta horietatik 1.903 emakumeak dira eta 1.506 gizonetzkoak. Ez dakigu gainerakoak gizonak edo emakumeak diren. Emakume bat da liburutegiko arduraduna.

Liburutegian buruturiko ekintzei buruzko datuak ez daude sexuaren arabera banatuta, ondoko taulan ikus daitekeenez:

## 12. TAULA: Liburutegian eginiko jarduerak. 2007.

JARDUERA	DATUAK	PARTAIDEEN KOPURUA
<b>Ipuin-kontalaria</b>	Urtean 5 aldiz egin dira. Egunero 2 saio egiten ziren. 2 emakumek egin dituzte	100 haur batez beste
<b>Eriz magoa</b>	--	43 haur
<b>XVIII. Literatura eta marrazketa lehiaketa</b>	4 neska eta 2 mutil daude sarituriko 6 pertsonen artean.	249 haur
<b>Mad Science</b>	Bi saio bereizten dira: bata sumendiekin eta bestea plastikoekin lotutakoak.	Sumendiak: 18 haur Plastikoak: 46 haur
<b>Ikasleen bisitak</b>	Haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako 1, 3	Ikastaroetako ikasle guztiak

Iturria: Geuk egindakoa, Elgoibarko udal liburutegiko datuekin

Komentatu denez, ipuin ez sexistak daude, baina ez dago horietarako atal espezifikorik.

**-Fosil eta mineralen museoa.** Ordutegi hau du: astelehenetik barikura, 18:30etik 20:00etara; jaiegunetan, 11:00etatik 14:00etara.

**-Makina-erremintako Museoa.**

**-Gemma Monreal pintura estudioa.** Irekita 15:00etatik 17:00etara.

**-Hitzaldi aretoa.**

**-Erakusketa aretoa.**

**-Herriko Antzokia.**

Bestalde, **Gazteriaren Udal Zerbitzua** du Elgoibarrek, eta emakume bat arduratzen da haren gestioaz. Hainbat proiektu eta ekipamendu bereizten dira zerbitzu horretan hala nola gazteentzako informazio-gunea, ludoteka, Gaztelekua, eta Biluzik –Sexologia Zerbitzua-.

- Gazteentzako informazio-gunea: emakume bat da zerbitzu honetako arduraduna, eta goizeko ordutegia du (10:30etik 13:30era) astelehen, asteazken eta barikuetan eta arratsaldekoa (17.00etatik 20.00etara) astelehenetik barikura. Doako zerbitzuak ematen ditu, eta udalerriko kultur etxearen bigarren solairuan dago. Zentro horretan, ikastaroei, txartelak tramitatzeari, bekei, lehiaketei, aisialdiko ekintzei, eta abarri buruzko informazioa ematen da.
- Ludoteka: Elgoibarko ludotekaren helburu nagusia haurren nortasuna garatzea da hainbat jokoren bidez. 5-12 urteko umeentzat da, eta 16:30etik 19:30erako ordutegia du, astelehenetik barikura. Hauexek dira zentro horretan egiten dira jarduerak: joko librea, gizarte-kulturako eta animazioko ekintzak, txangoak eta ludotekatik kanpora egiten diren kultur ekintzak.
- Gaztelekua: zentro honen ordutegia asteartetik domekara da, 17:00etatik 20:00etara, eta 13-18 urteko gazteentzat da. Uneoro izan dira bi hezitzaile profesional. Ondokoak dira zentro horretan egiten diren jarduerak: lehiaketak, tailerrak, gazteek proposaturiko jarduerak, topaketak gazteekin, etab.
- Biluzik: 2002an sortutako sexologia zerbitzu bat da. Urtean zehar, posta elektronikoko bidez erantzuten dira sexologiaren arloko kontsultak (astelehenetik barikura). Zerbitzuaren helburu nagusia sexuari eta sexualitateari buruzko informazioa eta aholkuak ematea da. Posta elektronikoko bidez egin daitezke kontsultak. Lehenbailehen emango zaie erantzuna. Hauexek izan dira 2007an eginiko jarduerak:

-Ekainak 28: *Gai, lesbiana, transexual eta bisexualen nazioarteko eguna*: homosexualitateari buruzko hezkuntza tailerra, LAHIA sexologia taldearen eskutik.

-Azaroak 25: Emakumearen kontrako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna zela-eta, tratatu txarren kontrako prebentzio tailer bat egin zen Elgoibarko ikastetxeetako bigarren hezkuntzako 4. mailako ikasleekin.

-Abenduak 1: *IHESaren Nazioarteko Eguna*.

Sex Txokoa: sexualitateari buruzko stand bat da, non IHESaren prebentziorako informazioa eta joko bat eskaintzen diren. Helburu bakarra du: IHESaren prebentzioari buruzko informazioa ematea gazteentzako metodologia erakargarriaren bidez.

Kirolaren eremuan, Elgoibarren udaleko hainbat kirol instalazio daude. Hauexek:

- Olaizaga polikiroldegia, instalazio hauekin:
  - Igerileku estaliak.
  - Erabilera askotarako kantxa.
  - 2 gimnasio.
  - Squasha.
  - Rokodromoa.
  - Frontoi txikia.
  - Muskulazio sala.
  - Saunak, hidromasajea, solariuma.
  - Kafetegia-jatetxea.
  - Arte martzialen gimnasioa.
  - Aldagelak.
  - Harmailak.
  
- Hona hemen Mintxetako kirol instalazioak:
  - Atletismo pista.
  - Belar artifizialeko futbol zelaiak.
  - Tenis pista.
  - Harmailak.
  - Aldagelak.
  - Muskulazioko gimnasio-aretoa.
  - Spinning aretoa.
  - Aire zabaleko igerilekua.
  - Solariuma.
  - Taberna.

Elgoibarrek ikastolako pilotalekua eta rokrodomo bat ere baditu.

Kirol Patronatuaren datuen arabera, 2007an 1.645 emakume bazkide eta 1.871 gizon bazkide zeuden. Zenbait ikastaro eta jarduera antolatu dira hala nola Aerobika, Karatea, Aquaerobika, Fitnessa, Igeriketa, Wing-tsun, dantza, Gimnasia adinekoentzat, Pilates, Body puma, Yoga, Batuta. 541 emakumek eta 300 gizonek hartu dute parte jarduera horietan.

Egon dauden instalazioez eta jardueraz gain, hainbat kirol elkarte daude:

### 13. TAULA: Elgoibarren dauden kirol elkarteak eta taldeak

KIROL ELKARTEAK EDO TALDEAK	JARDUERA
Elgoibarko Kirol Taldea	Futbola
Elgoibarko Saskibaloia Taldea	Saskibaloia
Elgoibarko Igeriketa Taldea	Igeriketa
Elgoibarko Futbol Sala Taldea	Areto futbola
Elgoibarko Lagun Taldea	Ziklismoa
Lagunak Pilota Eskola	Euskal pilota
Mintxeta Atletismo Taldea	Atletismoa
Morkaiko	Mendizaletasuna
Olaizaga Kirol Taldea	Karatea
Sanlo Eskubaloia Taldea	Eskubaloia
Urbizi	Urperkaritza
Urgazi	Triatloia
Zarta Arkulari Taldea	Arku-tiraketa
Zubi Ondo Xakea	Xakea

*Iturria. Geuk egindakoa, Elgoibar.org-eko datuekin*

Ez dugu sexu bakoitzak zuzendaritzan duen partaidetzaren eta eraketaren berri.

## TOPAKETAK EMAKUMEEKIN

### Kultur ekintzak

- Mezua duen eta berdintasun balioak bultzatuko dituen kultura sustatu (antzerkiak, liburuak, etab.) beharra planteatzen da.
- Emakumeengan zein gizonengan pentsatu beharra proposatzen da ikastaroak, kanpainak, kultur ekintzak, etab. planifikatzeko.
- Kultur sorkuntza orokorrean bultzatu beharra planteatzen da, eta berariaz emakumeen kultur sorkuntza.

- Kultur ekintzen ordutegiak handitu beharra nabarmentzen da, bateratzea errazten duen eskaintza zabalagoa eskainiz. Halaber, herritarren parte-hartzea sustatzeko kultur ekintzen kostua merkeagotzea proposatzen da.
- Kafe Antzoki bat edo kultur ekintzetarako toki bat eskatzen da.

### **Hedabideak**

- Hedabideei dagokienez, udalerrriak baliabide egokiak ditu hala nola Elgoibarren egunkari digitala edo Barren tokiko astekaria. Hala, hizkera eta irudi sexista ez erabiltzeko eskatzen da, batez ere gaztelaniazko hedabideetan, eta aldi berean, hedabideek emakumeak ikusarazi beharra planteatzen da.
- Publizitate sexistan esku hartu eta udalerriko hedabideetan gai hori zaindu beharra nabarmentzen da.

### **Kirolak**

- Emakumeentzako instalazio egokiak eskatzen dira, aldagelak adibidez, baita zenbait instalazio handitzea ere (polikiroldegia, adibidez), instalazio horiek txiki gelditu baitira. Gainera, emakumeen beharretara egokituriko ikastaroetan ordutegi zabalagoak egitea eta prezioak egokitzea proposatzen da.
- Neskari gazteenak kirolean parte hartzea sustatu beharra dagoela nabarmentzen da, haiek jabeazita.
- Adin ertaineko herritarrei dagokienez, bateratzea landu beharra nabarmentzen da. Eta eskaintza (ordutegiak handitzea, adibidez) herritarren beharretara bateratzea ere bai.
- Kirola egiten duten emakumeen presentzia ikusarazi beharra nabarmentzen da hala nola publizitatean, ekintza publikoetan, etab.
- Kirol jarduerak feminotzea proposatzen da, gehienbat gizonen kirolak baitira (futbol txapelketak, triatloiak, krosa...)

### **Beste batzuk**

- Emakumeak bazkide egingo diren elkarte gastronomiko bat sortzea proposatzen da.
- Adin guztietako emakumeak bilduko dituen emakume talde bat sortu beharra ikusten da (komentatu denez, Haizea hasiera batean ez zen emakume helduen talde bat, baina azkenean hala gertatu denez gero, egokia izango litzateke udalerriko adin guztietako emakumeek parte hartzeko beste elkarte bat sortzea).

Hezkuntza Arloan, ikastetxeei buruzko datuak aztertzen dira, sexuaren arabera banatuta, hots, profesionalen kopurua, ikasleen kopurua, ikastetxe horietako zuzendaritza karguetan dauden pertsonak, berdintasuna sustatzeko jarduerak izatea, etab.

Elgoibarren ikastetxe hauek daude: Herri eskola, ikastola, Elgoibar B.H.I, I.M.H., Haur eskola, Bernardo Ezenarro institutua, Arreiturre institutua eta Pilar ikastetxea.

**Elgoibar B.H.I.** herri ikastetxe bat da, bigarren hezkuntzako, batxilergoko eta maila ertainetako eta goi mailako heziketa zikloko eskolak ematen ditu.

Guztira 563 ikaslea dira, honelaxe daude banatuta:

- Bigarren hezkuntza: 65 neska eta 85 mutil.
- Batxilergoa: 102 neska eta 113 mutil.
- Heziketa zikloak: 75 neska eta 123 mutil.

100 irakasle profesionalak ematen dituzten eskolak, eta parekotasuna izango da emakumeen eta gizonen artean. 12 pertsonak osatzen dute zuzendaritza taldea, eta horietako 4 emakumeak dira eta gainerakoak (8) gizonak.

Hauexek dira ikastetxe horretan berdintasuna sustatzeko jarduerak:

- *Berdintasunerako tailerra*: bigarren hezkuntzako 2. eta 4. mailetan ematen da.
- *Sexu hezkuntzako programa*: bigarren hezkuntzako 2. eta 4. mailetan, batxilergoko 1. mailan eta heziketa ziklokoetako lehen kurtsoetarako ematen da. Horiek ekintza guztiak burutzeko, bilerak ere egiten dira gurasoekin.

**IMH** zentroan, maila ertaineko eta goi mailako heziketa zikloko, ingeniariartzako eta lanbide heziketako eskolak ematen dira. Ikastetxe pribatua da, heziketa zikloak izan ezik, horiek publikoak dira.

Hainbat ziklo mota eman dira:

- Hauexek bereizten dira goi mailako zikloen artean:
  - Proiektu mekanikoen garapena.
  - Ekoizpen mekanizatua.
  - Industri ekipamenduen mantentzea.
- Hauexek ditugu ziklo ertainen artean:
  - Mekanizatua
  - Elektromekanika
  - Makineria jartzea eta mantentzea.

Laneko trebakuntzaren kasuan, hainbat ikastaro ematen dira, horiek guztiak makina-erremintarekin lotutakoak. *Mutrikuko 2007ko Diagnostikoan eta enplegu-ekintza eta emakumeen planean* bildutako datuen arabera, ikasleak, ikastetxean amaitu ondoren, praktiketan parte hartzera bidaltzen saiatzen dira (partaideen %90ek egiten du hala), baina ez da horien gaineko jarraipen sistematizaturik egiten pertsona horiek gero kontratatuak diren ala ez jakiteko.

Emakume partaideen jatorriari dagokionez, funtsean Ermua, Eibar, Soraluze, Azkoitia eta Azpeititik datoz, baita Mutriku, Zumaia edo Zarautzik edo Bilbotik ere. Baina, jakina, batez ere inguruko herrietatik datoz.

Bestalde, laneratze-maila altuari dagokionez, I.M.H.k azpimarratu du gaur egun makina-erremintaren sektoreko enpresetan, tailerretan (mekanizatu eta muntaketako lana) laneratze-maila osoa altua dela. Hots, makina-erremintako trebakuntza dutenek posibilitate asko dituztela lan-merkatuan sartzeko, bai maila ertaineko eta goi mailako lanbide heziketan ikasi dutenean, bai laneko trebakuntzako ikastaro bat egiten dutenean, azken horien iraupena eta kategoria txikiagoak badira ere.

Ildo horretan, nabarmentzekoa da errelebo-kontratuen eskaintza handia, zeren Debabarrenean belaunaldien erreleboaren inguruko arazoa dago. Makina-erremintan trebaturiko jende gaztea falta da. Hala, bada, lanpostu bat eskaintzen zaio pertsona gazte bati, 60 urte bete dituen pertsona batek aldi batez trebatzen duena.

Ikastetxeak, guztira, 66 irakasle ditu, eta horietatik 13 emakumeak dira eta 53 gizonak. Zuzendaritza, ikasketa-burutza edo idazkaritzako karguetan dauden guztiak gizonaek dira.

Ikasleei dagokienez, oro har, gizonetako gehiago daudela ikus daiteke, zeren eta heziketa-zikloetako 224 ikasletik 17 baino ez dira emakumeak.

Ingeniaritzetan, 12 emakume dira eta 87 gizon. Lana duten eta langabezian dauden pertsonentzako kurtsoetan dago berdintasun handiagoa; izan ere, 31 emakumeak dira eta 32 gizonak.

Aipaturiko kurtso horietatik, bat antolatu da berariaz emakumeentzat, tornu mekanikoa irakasteko dena hain zuzen.

Berdintasuna sustatzeko jardueri dagokienez, kanpaina bat egin dute emakumeak heziketa-ziklo horiek egitera bultzatzeko. Gainera, diru-laguntza ematen ari zaie emakumeen kirol talde batzuei.

Ez dago aipaturiko gainerako ikastetxeei buruzko informaziorik.

Bestalde, 2003az gero, DEBEGESAK "Emakumeak industriara erakartzen" proiektua bultzatu du, Debanarreneko ikasleekin lankidetzan eta Europako Gizarte Funtsak kofinantziatua, neska ikasleek haien lanbide-karrera industriaren eremu batean lantzeko aukera balora dezaten eta industri proiektzioa duen trebakuntza tekniko edo teknologikoko espezialitateetan aritzeko; izan ere, eremu horietan emakume gutxi ari da eta eskualdeko enplegua biltzen da eremuotan. DEBEGESA proiektu horri ekitera bultzatu duen xedea emakumeak industriara erakartzea izan da ekoizpen-industrian presentzia txikia dutela egiaztatzen ondoren. Sektore hori da dinamikoena eta eskualdeko enpleguaren eskaintzarik eta kalitaterik handiena duena.

Bebabarrenean dauden DBHko (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) 13 ikastetxeetatik 9 eta 12 ikastetxek hartu dute parte proiektuan kasuaren arabera. Guztira, 2003 eta 2005. urte bitartean, DBHko 3. mailako 706 neska ikasleek hartu dute parte bertan (gutxi gorabehera 14 eta 15 urte bitartekoak). Ikastetxe bakoitzaren partaidetza desberdina izan da egutegiaren, baliagarritasunaren eta proiektuarekiko interesaren arabera.

Hainbat eragile (gurasoak, orientatzaileak, irakasleak, enpresak eta ikastetxeak) inplikatu nahi izan dira proiektuan, zeren hainbat faktorek baitute eragina ikasleak aukeratzean hala nola: informazioa, orientazioa eta ereduak (familia, ingurua, lagunak, hedabideak eta teknologiari buruz duten ikuspegi "grisa" besteak beste).

Faktore horiek lantzeko, 3 bloketan bil daitezkeen jarduketak burutu dira azken 3 urtean hala nola: orientazio-saioak, bisitak enpresetara eta ikastetxeetara eta idazketa-lehiaketa.


### **TOPAKETAK EMAKUMEEKIN**

- Oso zabaldua dago emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna benetakoa dela, eta gazteek ez dute uste diskriminaziorik dagoenik lan-merkatuan sartzeko unea iritsi arte. Horri aurre egin ahal izateko, ikasleak lehen hezkuntzatik aurrera jabeazti beharra planteatzen da. Emakunderen Nahiko deritzona bezalako programak abiarazi eta haurrak eta irakasleak programa horietan inplikatu beharra nabarmentzen da.
- Helduak jabeaztuko programen beharra dagoela nabarmentzen da, autoestimua lantzeko eta nor bere buruarengan duen konfiantzarik eza desagerrarazteko, batez ere emakumeengan. Hala, bidea ematen zaie emakumeei haien ahalmenaz jabetu daitezen eta bizitzako eremuetan duten partaidetza bultzatzeko modua izateko.
- Emakumeentzako toki baten beharra planteatzen da (Emakumearen etxea, adibidez), hainbat aukera eskaini ahal izateko, horien artean trebakuntza.
- Hezkuntzako materialetan islatzen diren rolak eta estereotipoak zaindu beharra nabarmentzen da.
- Hezkidetzako, baterako erantzukizuneko, etab. tailerrak antolatzea eskatzen da, hezkuntza formalean eta ez formalean lan egiten dutenentzat, familiakoentzat, hezitzaileentzat eta irakasleentzat, zeren horiek guztiek balioak transmititzen baitituzte.

Lan Arloan, hainbat adierazle aztertzen dira Elgoibarko emakumeen eta gizonen egoera konparatu ahal izateko. Arlo honetarako erabilitako adierazleen artean, hauexek daude: jarduera, lana, kontratazioa, langabezia, lan-eskatzailak eta hainbat jarduketa lan eta trebakuntza arloan. Sexuaren arabera banatuta agertzen dira ondoko datuak.

## JARDUERA

### 2. GRAFIKOA: 16-64 urteko biztanleen jarduera-tasaren eboluzioa. (%)



Iturria: Geuk egindakoa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren datuekin. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaintza)

Debabarrena

Orotara EAE

Aurreko grafikoan ikus daiteke Debarreneko eta Gipuzkoako jarduera-tasek 1993 eta 2006 bitartean izan duten eboluzioa. Urteekin goranzko joera ikusten da. Jaitsiera gertatu zen jarduera-tasan Debarrenean 2003tik 2005era. 2006. urtean, Gipuzkoako eta Debarreneko tasak %70 eta %66,7koak dira hurrenez hurren.

## LANEAN ARI DIREN LANGILEAK

Lanean ari direnei dagokienez, 2001ekoak dira Elgoibarko daturik berrienak, zentsuko datuak baitira. Hortaz, ondoren EAEko eta Gipuzkoako enplegu-tasak aztertuko dira. EAEko eta Gipuzkoako datuak oso antzekoak dira, baina desberdintasun txikiak dituzte.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, 2008ko lehen hiruhilekoan lan bakoitzeko enplegu-tasa %68,0koa da; emakumeen kasuan %58,7koa da eta gizonen kasuan, berriz, %77,2koa, hots, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna ia 20 puntukoa da. Emakumeen %14,8 zerbitzuetako pertsonalaren lanetan ari dira (gizonen kasuan, berriz, %7,2). Gizonen ehunekorik altuenak, ordea, kualifikatuen eta langileen arloan daude (%21,4, baina emakumeena txikia da, %1,5koa hain zuzen). Desberdintasun argiak ikusten dira beste lan batzuetan, eta emakumeen ehunekoa handiagoa

da gizonezkoena baino honako hauen kasuan: administrazioko langileak (emakumeak %7,3 dira eta gizonak %3,6) eta kualifikatu gabekoak (%7,7 emakumeak dira eta %3,9 gizonak). Gizonen portzentajea handiagoa da emakumeena baino zuzendari eta goi mailako karguen kasuan (%1,3 emakumeak eta %4,1, gizonak).

Gipuzkoaren kasuan, desberdintasun berdinak daude, baina portzentajeak desberdinak dira. Emakumeen portzentajerik handienak laguntzako teknikariak (%16,8) eta zerbitzuko eta salmentako pertsonala (%14,9) dira; gizonen kasuan, berriz, industriako kualifikatuak nabarmentzen dira, %25,8, eta gidariak eta langileak, %16,0.

#### 14. TAULA: EAE-KO ETA GIPIZKOAKO BIZTANLERIA, ENPLEGU-TASAREN JARDUERARI DAGOKIONEZ. 2008ko 1. hiruhilekoa

Enplegu-tasa	EAE			Gipuzkoa		
	Emak.	Gizonak	GUZTIRA	Emak.	Gizonak	GUZTIRA
Goi mailako zuzendariak eta teknikariak	1,3	4,1	2,7	1,3	5,0	3,2
Profesional intelekt. eta zientifikoak	2,4	10,0	11,2	13,1	9,7	11,4
Laguntzako teknikariak	11,3	9,3	10,3	<b>16,8</b>	11,2	13,9
Administrazio-langileak	7,3	3,6	5,4	2,8	2,2	2,5
Zerbitzu eta salmentako pertsonala	<b>14,8</b>	7,2	11,0	<b>14,9</b>	6,2	10,4
Nekazariak eta arrantzaleak	0,4	1,2	0,8	0,3	0,8	0,5
Industriako kualifikatuak	1,5	<b>21,4</b>	11,6	1,5	<b>25,8</b>	13,9
Gidariak eta operadoreak	2,1	<b>16,5</b>	9,4	3,2	<b>16,0</b>	9,7
Kualifikatu gabekoak	7,7	3,9	5,8	8,0	2,3	5,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>58,7</b>	<b>77,2</b>	<b>68,0</b>	<b>61,8</b>	<b>79,2</b>	<b>70,7</b>

Iturria: Geuk egindakoa, lanbide.net-eko datuekin


Jarduera-adarren arabera, biztanleak industriaren sektorean ari dira lanean.

#### 15. TAULA: Lanean ari diren 16 urtekoak eta hortik gorakoak, lurralde eremuka eta sexuaren arabera. 2001. Elgoibar.

	GUZT.	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Elgoibar	4.406	54	2.242	263	1.847
Debarbarrena	22.849	386	10.553	1.472	10.438
Gipuzkoa	291.606	5.073	91.934	23.924	170.675

Iturria: Geuk egindakoa EUSTATen datuekin. Biztanleria eta Etxebizitza Zentsuak 2001

**3. GRAFIKOA: Lanean ari diren 16 urtekoak eta hortik gorakoak, lurralde eremuka eta jarduera-adarraren arabera. Elgoibar. (%)**



Iturria: Geuk egindako grafikoa, EUSTATen datuekin. Biztanleria eta Etxebizitza Zentsuak 2001

[Nekazaritza](#)   [Zerbitzuak](#)   [Eraikuntza](#)   [Industria](#)

**KONTRATAZIOA**

2008ko martxoan, 268 lagun kontratatu dira Elgoibarren. Horietatik 122 emakumeak eta 146 gizonak dira. Eginiko kontratu motari dagokionez, gehienak aldi baterakoak dira (109 emakume eta 115 gizon) eta ia ez dago desberdintasunik sexuen artean. Soilik 27 pertsonak izan dute mugagabeko kontratua hasieratik, eta horietatik 8 emakumeak izan dira eta gainerako 19ak gizonak. 17 pertsona hasi ziren beste kontratu maila batekin eta azkenean langile mugagabeak izan dira. Horietatik 8 emakumeak dira eta gainerako 12ak gizonak. Elgoibarren 2008ko martxoan egin diren kontratu motetan, emakume gutxiago kontratatu da.

**16. TAULA: lan-kontratuak, sexuaren eta ekonomi jardueraren arabera. Elgoibar. 2008ko martxoa.**

Kontratu mota	Emakumeak	Gizonak	GUZTIRA
Mugagabea	8	19	27
Aldi baterakoa	109	115	224
Mugag. bih.	5	12	17
<b>GUZTIRA</b>	<b>122</b>	<b>146</b>	<b>268</b>

Iturria: Geuk egindako taula, INEMren datuekin

Honelaxe banatzen dira sektoreka 268 lan-kontratuak:

- Nekazaritza: 1

- Industria: 67
- Eraikuntza: 17
- Zerbitzuak: 183

Sektore eta sexuaren arabera kontratuei dagokienez, 2007ko lehen hiruhilekoan eginiko kontratu guztiak bereziki altuak dira industrian (54 emakume eta 175 gizon), eta enpresako zerbitzuetako jardueretan (94 emakume eta 85 gizon). Deigarria da ostalaritzan kontratua lortu duten emakumeen kopuru handia; izan ere, 72 emakume izan dira eta 5 gizon bakarrik. Desberdintasun horiek ikusten dira osasun eta albaitaritzako jardueretan: 2008ko lehen sei hilekoan emakumeen 28 kontratu izan dira, eta gizonen 3 kontratu. Garraioan eta eraikuntzan, bestalde, gizonen kasuan kontratu gehiago egin dira, eta desberdintasun argiak ikusten dira, batez ere eraikuntzaren kasuan, non emakumeei 2 kontratu eta gizoni 45 kontratu egin zaizkien. Hezkuntzaren sektorean, 20 emakume eta 14 gizon kontratatu dira. Guztira 106 kontratu egin ziren 2008. urteko lehen sei hilekoan, eta horietatik 39 emakumei eta 67 gizoni.


#### 17. TAULA: 2008KO 1. HIRUHILEKOAN ELGOIBARREN IZANDAKO LAN-KONTRATUAK, SEXUAREN ETA JARDUERAREN ARABERA. GUZTIRA

Kontratua	Gizonak	Emak.	GUZTIRA
Nekazaritza	4	0	4
Arrantza	0	0	0
Erauzketa industriak	0	0	0
Industria	175	54	229
Energia	0	0	0
Eraikuntza	45	2	47
Merkataritza	36	38	74
Ostalaritza	5	72	77
Garraioa	49	23	72
Finantza bitartekaritza	1	2	3
Enpresa zerbitzuetako jarduerak	85	94	179
Herri administrazioa	0	0	0
Hezkuntza	14	20	34
Osasun eta albaitaritzako jarduerak	3	28	31
Beste gizarte jarduera batzuk	3	5	8
Etxeko langileak dauden etxeak	0	1	1
Lurralde gairako erakundeak	0	0	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>420</b>	<b>339</b>	<b>759</b>

*Iturria: Geuk egindako taula, Lanbideren datuekin*

Elgoibar Debabarrenean dago; izan ere, eskualdea industri tradizio handikoa da, baina zerbitzuen sektorean hazkunde nabarmena gertatu da, ondoko grafikoan ikus daitekeenez.

#### 4. GRAFIKOA: Lan-kontratuak sektoreka Elgoibarren. 2008ko martxoa. (%)




Iturria: Geuk egindakoa, INEMren 2008ko martxoko datuekin

Nekazaritza      Zerbitzuak      Industria      Eraikuntza

#### LANGABEZIA

Langabetuen eboluzioari dagokionez, 2008ko martxoan 146 langabetu ziren, eta egoera horretan 76 emakume daude eta 70 gizon; hortaz, ez dago desberdintasunik sexua kontuan hartzen badugu. Hainbat urtetako martxoko eboluzioari erreparatzen badiogu, gizonen kontratuen kopurua igo egin da hile horretan. Emakumeen kasuan, berriz, bikoiztu egin dira kontratuak. Joera hori murriztu egin zen hurrengo urtean: 100 kontratu izatetik 76 kontratu izatera.

**5. GRAFIKOA: Langabetu kopuruaren bilakaera. Elgoibar. 2006-2007-2008ko martxoak**



Iturria: Geuk egindakoa grafikoa, INEMren 2006-2007-2008ko martxoko datuekin

Emakumeak      Gizonak      Orotara

2008ko martxoan zeuden 309 langabetuetatik 188 emakumeak ziren eta 121 gizonak. 188 emakumeetatik, 25 urtetik beherakoak dira 17, 76 emakume 45 urtetik gorakoak dira eta gainerakoak (95 emakume) 25 eta 44 urte bitartekoak dira. Gizonen kasuan, 25 eta 44 urte bitartekoak dira 67 gizon, 13 gizon 25 urtetik beherakoak dira eta 45 urtetik gorakoak dira 41. Sektoreka, honelaxe dago banatuta langabetuen kopurua:


- Nekazaritza: 5
- Industria: 67
- Eraikuntza: 25
- Zerbitzuak: 190

309 pertsonetatik 22 lehen lana bilatzen ari dira. Ez dago sexuaren arabera banaturiko daturik langabetuen kopurua sektoreka banatzeari dagokionez.

**LANBIDEKO LAN-ESKATZAILE AKTIBOAK**

Sexuaren arabera, 662 emakume dira 2008ko lehen hiruhilekoan Debabarrenean Lanbideren enplegu-eskatzaile aktiboak, hots, %60,4, eta 434 gizon, hots, %39,6.

**6. GRAFIKOA: Lanbideko lan-eskatzaille aktiboak. Sexua. Debarrena. 2008ko 1. hiruhilekoa**




Iturria: Geuk egindakoa Lanbideren datuekin

**GIZONAK      EMAKUMEAK**

Adinaren eta sexuaren arabera, 25 eta 34 urte bitarteko emakumeak izan dira Lanbideren zerbitzuak 2008ko lehen hiruhilekoan Debarrenean gehien eskatu dituztenak (277 emakume), eta ondoren 35 eta 44 urte bitartekoak (185 emakume).


**6. GRAFIKOA: Lanbideko lan-eskatzaille aktiboak. Adina eta sexua. Debarrena. 2008ko lehen hiruhilekoa**



Emakumeak      Gizonak

Lan egoeraren eta sexuaren arabera, emakume langabetuak izan dira (493 emakume) Debarrenean 2008ko lehen hiruhilekoan Lanbideko zerbitzuak eskatu dituztenak, eta jarraian egoera berean dauden gizonak (352 gizon). Enplegua eskatu duten eta lanean ari diren pertsonen artean, handiagoa izan da emakumeen eskaria.

### 8. GRAFIKOA: Lanbideko lan-eskatzaille aktiboak. Lan egoera eta sexua. Debarrena. 2008ko lehen hiruhilekoa.



Iturria: Geuk egindakoa, Lanbideren datuekin

Lanean      Langabetuak  
Emakumeak      Gizonak

### LANBIDE ORIENTAZIO ZERBITZUA

Lanbide Orientazio Zerbitzuak 140 pertsona lagundu ditu 2007. urtean. 140 pertsona horietatik 79 emakumeak ziren eta 61 gizonak. Lagunduriko pertsonak guztizkoaren %14,6 dira.

### INEM-EN IZENA EMANDA DAUDEN LAN-ESKATZAILEAK

Lehen atalerako, Lanbidetik lorturiko datuak erabili dira, 2008ko lehen sei hilekoan erregistraturiko lan-eskatzailleei buruzkoak.

2008ko lehen hiruhilekoan, 309 pertsona egon dira langabetuen zerrendan, eta horietatik 188 emakumeak eta 121 gizonenak ziren. Adinen araberrako banaketan, desberdintasun argiak ikusten dira

44 urtetik gorako adin-tartean, emakumeen kopurua (76 emakume) gizonetzkoena bi halako da gutxi gorabehera (4 gizon).

#### 18. TAULA: LANGABEZIA ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA. ELGOIBAR. 2008KO 1. HIRUHILEKOA

Adina	Emak.	Gizonak	GUZTIRA
25 urtetik behera	17	13	30
25 - 34 urte	50	35	85
35 - 44 urte	45	32	77
44 urtetik gora	76	41	117
<b>GUZTIRA</b>	<b>188</b>	<b>121</b>	<b>309</b>

Iturria: Geuk egindako taula, Lanbideren datuekin

#### TREBAKUNTZA ETA LAN ARLOKO JARDUKETAK

Debagesak eginiko memorian, trebakuntzaren eta enpleguaren, adinekoen eta aukera-berdintasunaren arloetan 2007an eginiko jarduketaren deskribapenean hain zuzen, Debagesako Enplegu Zerbitzuak eskainitako zerbitzuak nabarmentzen dira. Hauexek dira zerbitzuak: laneko orientazioa, laneko bitartekaritza, enplegu zentroa eta ikaskuntzarako trebakuntza.

Etengabeko trebakuntzari dagokionez, 2007. urtean lanean ari direnentzako 6 ikastaro eman dira bi arlo tematiko ardatz hartuta: adinekoak zaintzea eta enpresa kudeaketa.

Aukera-berdintasunari dagokionez, hauexek izan dira jarduketak:

#### Equal Kideitu

- Barneko genero-auditoriaren garapena.
- Agentziako pertsonalerako trebakuntza.
- Genero-mainstreaming-a autoenplegurako aholkularitza zerbitzuaren jardueran ezartzea.

#### Aukera-berdintasuna sustatzeko proiektua eskualdeko eta Debagesako udaletan.

2007an buruturiko jarduerak

1. Bultzada emateko udal arteko egiturak sortzea.
2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Barne-planak egitea.
3. Aukera-berdintasunaren arloko trebakuntza programak antolatzea eta ematea.
4. 2007rako aurreikusitako ekintzen garapena.
5. Beste jarduketa batzuk.

#### Beste proiektu batzuk

- Debabarreneko Garapen Iraunkorrerako Plan Estrategikoa abiaraztea, 2006-2010.
- Eskualdeko gizarte-ekonomiako behategia. Depure proiektua.
- Udalerrri hauetako immigrazioaren egoeraren diagnostikoari buruzko azterlan baten hasiera: Mallabia, Soraluze, Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutriku.

## TOPAKETAK EMAKUMEEKIN

- Gaur egun zaintzaileak emakumeak direnez, haien partaidetza susta liteke lan eginkizun horretarako zerbitzu gehiago eskainiz.
- Parekotasuna sustatzeko eta emakumeek lan-merkatuan (soldatetako diskriminazioa, goi mailako karguez jabetzeko ezintasuna edo zailtasuna, etab.) izaten duten diskriminazioa desagerrarazteko. Emakumeek zenbait sektoretan beren ahalmena frogatzeko egin behar izaten dituzten ahaleginak komentatu dira; ez da hala gertatzen gizonen kasuan.
- Etxeko lanen edo pertsonak zaintzeko lanen banaketa sustatu beharra nabarmentzen da, zeren eta emakumeak baitira gehienbat lan horiek egiten dituztenak. Hainbat alternatiba proposatzen dira hezkuntzatik (jabeaztea, sentsibilizazioa) planteatzen den lanaz gain, hala nola zaintzarekin lotutako lanak ordaintzea, emakume zaintzaileek kotizatzekeko posibilitatea izatea, etab.
- Egungo lanaren antolaketak (7 edo 8 orduko lanaldiak) ez du errazten lana eta bizitza pertsonala bateratzea; hori dela-eta, berrikustea proposatu beharko litzateke.

Gizarteratze Arloan, gizarte baliabide nagusiekin eta Elgoibarren besteen laguntza behar duten adinekoekin lotutako datuak.

Udalerriko etorkinei buruzko datuak ere ematen dira; datuak sexuaren arabera daude banatuta desberdintasunik dagoen jakiteko. Horretaz gain, udalerriko genero-indarkeriari buruzko datuak ere islatzen dira.

Gizarteratze Zerbitzua oinarrizko gizarte zerbitzuen baliabide bat da, baztertuak izateko arriskuan daudenei eta gizarteratzeko zailtasunak dituztenei eskaintzen zaie eta, kasu askotan, oinarrizko errentaren onuradunak direnei.

Honelaxe banatzen dira laguntza emateko egunen plangintza eta antolaketa:

- Mendaro: astelehena
- Soraluze: asteartea edo asteartea/asteazkena (txandakako asteetan)
- Mutriku: asteazkena/osteguna edo osteguna (bi aste txandaka)
- Elgoibar: astelehena/asteartea/osteguna (bi aste)
- Deba: asteazkena/barikua (bi aste) eta asteazkena (bi aste)

Udalerrri horietan guztietan, lagundu beharreko kasu kopuru jakin bat ezarri da. Hala bermatzen da jarduketan kalitatea eta zerbitzuak eskatzaile-kopuru handiarekin gainezka -Soraluze 2006an gertatu zen moduan- ez egitea lortzen da.

Honelaxe ezarri da udalerrri bakoitzeko kasuen kopurua: Elgoibar (31), Deba (19), Soraluze (18), Mutriku (17-18), Mendaro (7-8).

Kasuak bideratzean jarraitu beharreko prozedura oinarrizko gizarte zerbitzuak kasuak antzematean datza, eta gizarteratze zerbitzura bideratzean.

Mutriku, Mendaro, Soraluze, Deba eta Elgoibarko udalen gizarteratze zerbitzuaren 2007ko memoriaren arabera, Gizarteratze Zerbitzuan 2007an guztira 93 pertsona lagundu dira, 93 pertsona horietatik, 54 emakumeak ziren eta 39 gizonak. Hona hemen atentzio-kopuru handiena duten udalerrriak: Elgoibar (20 emakume eta 13 gizon) eta Soraluze (13 emakume eta 10 gizon).

#### 19. TAULA: DEBABARRENEKO GIZARTERATZE ZERBITZUAN LAGUNDUTAKO PERTSONAK SEXUAREN ARABERA, 2007. URTEA

AUZUNEA	Emak.	Gizonak	GUZTIRA
DEBA	11	7	18
ELGOIBAR	20	13	33
MUTRIKU	5	5	10
SORALUZE	13	10	23
MENDARO	5	4	9
<b>GUZTIRA</b>	<b>54</b>	<b>39</b>	<b>93</b>

Iturria: Geuk egindako taula, Gizarteratzea Zerbitzuaren 2007ko memoriako datuekin.

Hauexek dira Elgoibarko biztanleen diru-laguntzei buruzko egungo datuak:

- Oinarrizko errenta: 115 emakume eta 38 gizon.
- Gizarte larrialdietarako laguntzak: 48 emakume eta 15 gizon.
- Etxez etxeko laguntza: 35 emakume eta 10 gizon.

**20. TAULA: BALIABIDE ESKURAGARRI NAGUSIAK: EGUNEKO ZENTROEN ETA EGOITZEN PLAZAK ETA ETXEKO ZERBITZUEN ATENTZIO AHALMENA (2006)**

	ELGOIBAR	Eskuald. (Debabarrena)	Tamaina (10.000- 20.000 bizt.)	Gipuzkoa
<b>Egoitzako plazak</b>				
- GUZTIRA	51	431	1.135	5.465
- Adinekoak	48	406	997	4.446
- Egoitzak, egonaldi iraunkorrak			935	3.768
- Babestutako etxebizitzak eta apartament.			62	474
- Egoitzak, aldi baterako egonaldiak			0	204
- Ezinduak	3	17	107	666
- Adingabeak	0	8	31	353
- Harrera zentroetan			0	191
- Harrera familietan (2005)			31	162
<b>Eguneko zentroko plazak</b>				
- GUZTIRA (asteburuak kanpo)	15	94	374	1.742

- Adinekoak (asteburuak kanpo)	15	66	277	1.088
- Asteko egunetan			277	1.088
-Asteburuetan			133	512
- Ezinduak	0	28	97	654
<b>Etxeko atentzioko zerbitzuen ahalmena</b>				
- Etxeko atentzioko zerbitzua	32	164	761	2.900
- Telealarma	55	338	1.183	5.106
Baliabideen atentzioaren ahalmen orokorra (egoitzako plazak + Eguneko zentroko plazak + Etxeko atentzio zerbitzua)	98	689	2.270	10.107

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikarako Saila

Aurreko taulan ikus daitekeenez, Elgoibarren egoitzako 51 plaza daude, horietatik 48 adinekoentzat, eta 3 ezinduentzat. Udalerriak, gainera, 15 plaza ditu adinekoentzako eguneko zentroetan. 2006an, 32 etxetan erabili zen etxez etxeko laguntza zerbitzua, eta telealarma zerbitzua 55 kasutan.

## 21. TAULA: BESTEEN LAGUNTZA BEHAR DUTEN ADINEKOEI EGOITZA ZERBITZU EGONKORREK EMANDAKO BABESA (2006)

	ELGOIBAR	Eskuald.( Debabarr ena)	Tamaina (10.000- 20.000 bizt.)	Gipuzkoa
Erabiltzaileak urtean	76	460	1.199	4.679
Erabiltzaileak, XII/31n	59	363	941	3.589
Itxaron- zerrendako pertsonak, XII/31n	16	94	233	980
Sailaren diru ekarpena (euroak) (2005)	518.656	4.688.258	10.049.788	41.599.401

Zerbitzuen estaldura (erabiltzaileak /urtea, 65 urte eta gehiagoko 100 pertsonako)	3,40	4,01	3,58	3,71
Zerbitzuen norainokoa (erabiltzaileak XII/31n, 65 urte eta gehiagoko 100 pertsonako)	2,64	3,17	2,81	2,85
Errotazio-indizea (erabiltzaileak /urtea, erabiltzaileko, XII/31n)	1,29	1,27	1,27	1,30
Erabiltzaileen batez besteko adina XII/31n	81,00	82,08	82,51	83,07
Emakumeek proportzioa urtean	59,21	65,43	67,97	69,37
Emakumeetza ko laguntza estaldura (65 urte edo gehiagoko 100 emakumeko)	3,50	4,52	4,25	4,39
Mendekotasun larria duten erabiltzaileen proportzioa urtean	64,47	71,09	74,48	76,96
Departamentu aren gastua				
- Erabiltzaileak urteko	6.824,42	10.191,86	8.381,81	8.890,66
- 65 urte eta hortik gorako pertsonak	232,06	409,13	300,45	330,09
Itxaron-zerrenda				

- Itxaron-zerrendako pertsonen eta erabiltzaileen artean XII/31n (%)	27,12	25,90	24,76	27,31
--	-------	-------	-------	-------

- Batez besteko denbora itxaron-zerrendan (egunak)	501	387	311	390
--	-----	-----	-----	-----

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikarako Saila

Elgoibarren besteen laguntza behar duten adinekoekin lotutako datuei dagokienez, aurreko taulan agertzen denez, Elgoibarren 76 erabiltzaile daude, eta Debabarrenean izena emanda daudenak, berriz, 460 erabiltzaile dira.

Elgoibarren kasuan, zerbitzu honen emakume erabiltzaileen proportzioa %59,21ekoa da, eta nahikoa altuagoa da eskualdean zein Gipuzkoan, hots, %65,43 eta %69,37 hurrenez hurren. Besteen premiazko laguntza behar duten erabiltzaileen proportzioa Elgoibarren %64,47koa, baina handiagoa da eskualdean (%71,09) eta Gipuzkoan (%76,96).

2006ko abenduaren 31n, erabiltzaileen batez besteko adina 81 urtekoa da eskualdean, eta 83 urtekoa Gipuzkoako lurraldean. Aldi horretan, itxaron-zerrendan emandako batez besteko denbora 501 egunekoa da.

## IMMIGRAZIOA

Elgoibarren bizi diren etorkinen gaineko 2008ko otsaileko diagnostikoaren azterlanetik eta diagnostikotik lorturiko datuen arabera, 542 etorkin daude **etorkinen zentsuan** izena emanda 2008ko otsailaren 1ean, Udalaren Udal Erroldaren arabera. Proportzioa %4,9koa da, EAEkoa (%4,6) eta lurraldekoa (%4,1) baino pixka bat handiagoa. Elgoibarren 9,5 aldiz handitu da etorkinen kopurua azken zazpi urtean.

Ondoko taulan emakumeen eta gizonen portzentajeak agertzen dira, Elgoibarko etorkinen jatorrizko herrialdeei dagozkienak.

**22. TAULA: Elgoibarko etorkinen jatorrizko herrialde nagusiak sexuaren arabera. 2008.(%)**

JATORRIZKO HERRIALDE NAGUSIAK	Gizonak	Emakumeak
<b>Bolivia</b>	39,9	<b>60,1</b>
<b>Portugal</b>	<b>66,7</b>	33,3
<b>Maroko</b>	<b>63,5</b>	36,5

<b>Kolonbia</b>	44,5	55,5
<b>Pakistan</b>	<b>90,7</b>	9,3
<b>Brasil</b>	17,3	<b>82,7</b>
<b>Ekudor</b>	52,0	48,0

*Iturria: Geuk egindako taula, Elgoibarren bizi diren etorkinei buruzko azterlanaren eta diagnostikoaren datuekin. 2008ko otsaila*

Gaur egun, emakume etorkinen guztizko kopurua, %54koa hain zuzen, **gizonezkoena baino handiagoa** da (%46). Boliviakoak eta Brasilgo etorkinak gehienbat emakumeak dira. Pakistan, Portugal eta Marokoren kasuan, aldiz, gizonak dira nagusi portzentajeetan.

Etorkinen %68,4k 26-59 urte ditu. Emakumeak nagusi dira askoz 15 eta 24 urte bitartekoetan eta 60 urtetik gorakoetan.

Etorkinen %77,7 eta %56,7, ikasketarik gabekoa edo oinarritzko ikasketen jabea, emakumezkoa da. Goi mailako ikasketak dituzten emakumeen portzentajea ere handiagoa da, %56,3 hain zuzen ere.

2007. urtean, guztira 178 etorkin **kontratatu** ziren Elgoibarren, eta horietatik %71,9 **gizonak** izan ziren. **Eraikuntza** (%98,9) eta **industria** (%83,1) sektoreetan gizonezko etorkinen kontratazioaren portzentajea oso altua da; beste sektore batzuetan, ordea, gehiago dira emakume etorkinak, etxeko zerbitzuan eta garbiketean (%85,7) eta merkataritzan (%92,8) adibidez. Gizonak nagusi dira Elgoibarren lana eskatzen duten etorkinen artean 2006an.

## **GENERO-INDARKERIA**

**Genero-indarkeriarekin** lotutako gaiei dagokienez eta 2008ko apirilean Debarrenen genero-indarkeriari buruz eginiko diagnostikoaren datuen arabera, aldatzen ari da zerbitzura biktimak gisa agertzen diren emakumeen profila. Orain dela zenbait urte, ugariagoak ziren etxeko andre helduak, urte askoko tratu txarren historia zutenak. Azken aldian oso emakume gazteak izaten ari dira, eta emakume etorkinen presentzia nabarmentzen da, berezi Amerika Latinokoak. Hala eta guztiz ere, ez da egiten kasuen gaineko erregistro sistematikoa.

Eibarren tratu txarren biktimak diren emakumeentzako harrera-pisu bat dago. Horren beharra duten emakumeak hiru hilabetez egon daitezke bertan seme-alabekin, eta epe hori luzatu egin daiteke. Libre egoten da askotan. Igogailua du pisuak, baina ez dago egokituta mugikortasun arazoak dituzten emakumeentzat. Batzuetan beste toki batzuetara eraman behar izan da biktimak bat segurtasun arazoak tarteko, eta alderantziz.

Biktimak ez du zertan jarri salaketa gizarte zerbitzuen laguntza jasotzeko.

Aldundiak laguntza psikologiko eta juridikoko programa bat finantzatzen du, eta hoteleko bizpahiru eguneko egonaldia emakumeentzat. Batzuetan eta erakunde horren bitartez, laguntza psikologikoa eman zaie horren beharra izan duten adingabeei.

Ez dago itzulpen zerbitzurik ez zeinu-interpretaren zerbitzurik, baina orain arte ez da horren beharrik izan.

Jarduteko gida idatzi bat dago, bertan ezarritakoak jarraitzeko ahaleginak egiten dira eta honako ildo hauek ematen ditu: ospitaletik Ertzaintzarengana jo behar da, abokatuarekin harremanetan jarri eta azkenean gizarte zerbitzuetara bideratzen da behar dituzten diru prestazioak, laguntza psikologikoak, etab. eskatzeko.

Hiru bidetatik iristen dira emakumeak gizarte zerbitzuetara: anbulatortik, poliziatik, edo bestela ezagunen bitartez edo noizean behin egiten diren kanpainetatik.

Gutxienez 28 kasutan eman da laguntza 2003tik hona gutxi gorabehera. Jarduketa bakoitza duten karpeta irekiak eta dokumentazioa daude: babes-aginduak, argazkiak, informazio orokorra.

Agenteek badakizkitez udalerriko emakume babestuen izenak, eta iragarki-taulak erabiltzen dituzte behar bezala ikusteko.

Tratu txarren kasu bat antzematen denean, Udaltzaingoak kasuaren berri ematen dio berehala Ertzaintzari telefonoz, zeren soilik genero-indarkerian lanean diharduen emakume analista bat baitute. Biktima Ertzaintzara eramaten dute, Eibarrera. Inoiz ez da uzten bakarrik eta laguntzarik gabe.

Informazio guztia Ertzaintzari bidaltzen zaio: biktimaren eta tratu txarrak ematen dituenaren argazkiak, etab. Eta Udaltzaingoak, hala, artxibo bat sortzen du emakume horren dokumentazioarekin. "Hala, ekarpenen bat egiten duzun irudipena daukazu".

Guztira, 20 agente daude atentzio guztietarako, eta bi baino ez dira emakumeak.

Ez dute genero-indarkerian trebatutako pertsona bat. Baina pertsonal guztiak egin du 2005ean eta 2006an arazo horren inguruko bi eguneko ikastaro bat Arkauten.

Deba, Elgoibar, Mallabia, Mendaro, Mutriku eta Sorluzeko etxeko indarkeriari eta sexu-askatasunaren kontrako delituei buruzko txostenaren datuen arabera, etxeko indarkeriako 28 kasu izan dira. Kasu horietatik 21 kasutan biktimaren ezkontidea izan da erasotzailea. 2006. urtean, sexu-askatasunaren kontrako delitu bat izan da.

### 23. TAULA: ETXEKO GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMAK ADINAREN ARABERA (2006-2007)

BIKTIMEN ADIN-TARTEA	KASU KOP.
18-22 urte	4
23-27 urte	4
28-32 urte	6
33-39 urte	5
40-49 urte	6
50-59 urte	3

*Iturria: Geuk egindako taula, udalerrri hauetan etxeko indarkeriari eta sexu-askatasunaren kontrako delituei buruzko txostenaren datuekin: Deba, Elgoibar, Mallabia, Mendaro, Mutriku eta Soraluze.*

Oro har, emakumeen adina askotarikoa da, eta kasuak gertatu dira adin-tarte guztietan.

#### 24. TAULA. ELGOIBARKO ERASOTZAILEEN ETA BIKTIMEN JAIOTZE-TOKIA. 2006 ETA 2007

JAIOTERRIA	BIKTIMA	ERASOTZAILEA
Araba	1	1
Gipuzkoa	13	7
Beste estatu batzuk		5
Amerika	8	8
GUZTIRA	28	21

*Iturria: Geuk egindako taula, udalerrri hauetan etxeko indarkeriari eta sexu-askatasunaren kontrako delituei buruzko txostenaren datuekin: Deba, Elgoibar, Mallabia, Mendaro, Mutriku eta Soraluze.*

Jaioterriari dagokionez, biktima gehienak Gipuzkoan jaiotakoak dira. Guztira 21 erasotzaile izan dira.

#### TOPAKETAK EMAKUMEEKIN

##### Babes gutxien duten taldeak

- Migrazioaren gaian ikus daitekeenez, udalerriko immigrazioari buruzko azterlan bat egin beharra dago, berariaz emakume etorkinen ingurukoa, lehenbiziko harrera nolakoa den aztertzeko eta bertakoen eta etorkinen arteko harremanak nolakoak diren jakiteko gizarteratzeari begira.
- Baztertutakoei laguntzeko zerbitzua eskainiko duen erabilera askotarako zentro bat eraiki beharra planteatzen da.
- Herritarrei Udalak kudeatzen dituen zerbitzuei, diru-laguntzei, etxebizitzari, tratu txarren biktimak diren emakumeentzako baliabideei, etab. buruzko informazioa eman beharra nabarmentzen da, eta ahaleginak egin behar dira informazio hori herritar guztiei helarazi ahal izateko.

- Gainera, benetako gizarteratzea lortzeko programak abiarazteko eskatzen da. Halaber, prebentzioko tailerrak ere eskatzen dira tratu txarrekin, droga-mendekotasunarekin, VIH/IHESarekin, famili plangintzarekin eta abarrekin lotutakoak.
- Babes gutxien dutenen artean autolaguntzarako edo lan egiteko taldeak sortu beharra nabarmentzen da.
- Oro har, babes eta laguntza gehiago eskatzen da babes gutxien duten pertsonentzat.

### **Besteen laguntza behar dutenei laguntzea**

- Haurtzaindegiko zerbitzuei dagokienez komentatu denez, haurtzaindegiko zerbitzuak ez du estaltzen eskaria. Hori dela-eta, zerbitzu hori handitzea eta ordutegi malguagoak egitea eskatzen da.
- Eskoletako haurtzaindegiko eta gainerako haurtzaindegietako zerbitzuen arteko koordinazioaren beharra nabarmentzen da.
- Adinekoentzako zerbitzuei dagokienez, eguneko zentroa eta jubilatuena etxea egungo beharretara egokitu beharra nabarmentzen da.
- Etxez etxeko laguntzako zerbitzua berrikustea proposatzen da eta, beharrezkotzat jotzen bada, egungo beharretara egokitzea.
- Emakumeentzako erabilera askotarako gizarte etxe bat sortu beharra planteatzen da; emakumeentzako aholkularitza eta trebakuntza zerbitzua eskaintzeaz gain, udalerriko emakumeak biltzeko eta elkartzeko gune bat eskainiko litzateke.
- Herritarrak oro har jabeaz beharra nabarmentzen da emakumeek duten zaintzaile rola inguruan. Gizonak zaintza-lanetan inplikatu beharra komentatzen da gizonak jabeazteko lanaren bidez.
- Laguntza eman beharko litzateke behar bereziak dituzten seme-alaben gurasoei, baita besteen laguntza behar duten pertsonak zaintzeaz arduratzen direnei ere (zaintzarako doako zerbitzuak hala nola haurtzaindegiak, etxeko laguntza, etab.).

### **Gazteria**

- Udalerriko gazteei dagokienez, rolak eta estereotipoak hausteko modua lantzea proposatzen da denbora librearen eta aisialdiaren sektoreetatik.
- Guneen erabilera aztertu beharra planteatzen da: neskek elkartzeko dituzten bilguneak, guneak eskoletan erabiltzea, etab.
- Emakumeen egoerari buruzko diagnostiko bat egin beharra planteatzen da eta batez ere emakume gazteei eta lanari buruzkoa.
- Gazteek etxebizitza eskuratzeko duten arazo handia planteatzen da; izan ere, banaka ezin eskura dezakete etxebizitzarik.
- Drogen kontsumoari, horren arriskuari, sexualitateari eta abarri buruzko informazio eta aholkularitza zerbitzua sortzea proposatzen da.
- Udalerriko emakume gazteen diagnostikoa egitea planteatzen da, haien interesak, nahiago dituzten tokiak, ordutegiak eta zein jardueretan parte hartuko luketen jakiteko, emakumeek parte hartuko luketen jarduerak ziurtatze aldera. Gainera, gazteekin erabiltzen diren komunikabideak aldatzea proposatzen da, teknologia berriak erabiliz.

Hirigintza eta Ingurumen Arloan udalerrriak dituen komunikazioak aztertzen dira, errepidez zein trenbidez. Horretaz gain, Hirigintzarekin eta Ingurumenarekin lotutako eta buruturiko planak islatzen dira honako atal honetan. Arlo horren beste ezaugarri oso garrantzitsu bat baserri inguruetan bizi direnak dira, eta horregatik aztertzen dira pertsona horiek dituzten baliabideak eta egoerak. Bestalde, udalerriko kaleak ere aztertzen dira izena kontuan izanik, hots, gizon edo emakume izenak diren.

Elgoibar 50 kilometrora dago Euskal Autonomia Erkidegoko hiru euskal hiriburuekiko. Donostiarekin eta Bilborekin komunikatuta dago Bilbo-Behobia autopistaren, N-634 errepidearen eta Eusko Trenbideak enpresaren trenaren bidez. Gasteizekin, berriz, A-8 autopistaren, Vasco-aragonesa autopistaren eta C-6213 errepidearen bidez.

Elgoibarreko iraunkortasunari buruz Agenda 21ek argitaraturiko diagnostikoaren arabera, Elgoibarko lurzoru urbanizagaiaren %43,63 industri jarduerarako da, eta lurzoru horren %27,18 etxebizitzak eraikitzeke erabiltzen da.

Plan bat egin da Elgoibarko barrera arkitektonikoak desagerrarazteko; plan horren bidez burutzen diren ekintzen adibide bat udalerrian eskailera mekanikoak jartzea da.

Debabarreneko udalerriek, Debegesarekin batera, herritarrak ingurumenaz jabeaztearekin lotutako hainbat kanpaina abiarazi dituzte. Debabarreneko Foroaz gain, beste foro espezifiko bat sortu da Elgoibarren.

Landa eremuari dagokionez, Debabarreneko biztanle guztien %5,8 baserri inguruan bizi dira, eta guztira 44 auzune ditu. Hona hemen Elgoibar udal-mugarteko landa-auzuneak: Urruzuno, Altzola, San Antolin, Sallobente, Aiaistia, Idotorbe eta Azkue.

**Debemen** Debabarreneko landa-garapenerako elkarte bat da. 6 udalerriko ordezkariak, sindikatuetaordezkariak eta baserriarren kooperatiba eta elkarteetako ordezkariak osatuta dago elkarte hori. Elkartearen zuzendaritza batzar nagusiari dagokio, eta gerente baten ardurapean dago kudeaketa teknikari eta idazkari baten laguntzaz.

Irabazteko asmorik gabeko elkarte bat da, eta finantzabide nagusia udalen ekarpenak eta Eusko Jaurlaritzaren ELKARTEAK programatik jasotako diru-laguntzak dira. Elkartea 1991n sortu zen baserrietako biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko, eta horretarako hainbat eremutan egiten da lan. Hauexek dira baserriarren elkarteak eta elkarte horietako sindikatuak:

-INEKO	-BIOLUR
-URKAIKO	-GIFE
-GITEBEL	-GILE
-ELE	-GILBE
-GEE	-HITZEZ

Bi sindikatu daude arlo honetan: EHNE eta ENBA.

Aipaturiko elkarte horietako 9tan gizonak dira ordezkariak, eta emakume ordezkari bakarra duena emakume baserritarren Hitzez elkartekoa da.

Hitzez elkartearen lanaren ardatzak emakume baserritarren osasun fisikoa eta psikologikoa dira. Elkarte horretan, tailerrak eta hitzaldiak egiten dira eta laguntza psikologikoa ematen duen talde bat dago.

Debabarreneko Landa-garapenerako Agentziak (Debemen), 2007. urtean, besteen laguntza behar duten adinekoak zaintzen dituztenentzako ikastaro bat egin zuen Arraten.

2008. urtean, gai horrekin lotutako beste ikastaro bat egiten ari da, aurreko urtean emandakoa sakontzeko, baina kasu honetan Elgoibarren egiten ari da, eskualdeko biztanleen mugikortasuna errazteko. Hauexek dira ikastaro horren helburuak:

**1. helburua:** adinekoak eta gizartea oro har eta bereziki eskualdearen zahartze-prozesuaren gizarte ezaugarriak ezagutzea.

**2. helburua:** adinekoei laguntzeko gizarte baliabideak ezagutzea, gizartean oro har eta bereziki eskualdean.

**3. helburua:** adinekoen ezaugarri psikologikoak eta zahartze-prozesuaren beraren ezaugarriak ezagutzea.

**4. helburua:** adinekoei osasun laguntza egokia emateko beharrezko oinarrizko ezaguerak eta gaitasunak eskuratzea.

**5. helburua:** adinekoekin gizarte-kulturako esku-hartzerako beharrezko oinarrizko nozioak eta gaitasunak eskuratzea.

**6. helburua:** zaintzaile lana betetzeko beharrezko oinarrizko nozioak eta gaitasunak eskuratzea.

**7. helburua:** emakume horiek adinekoei laguntzearen eremuan laneratzea lortzeko beharrezko oinarrizko nozioak eta gaitasunak eskuratzea.

**8. helburua:** praktikan jartzea gizartearen, psikologiaren eta osasunaren eremuan eskuraturiko ezaguerak, baita zaintzaileari dagokionez ere.

Landa-garapenerako Agentziak ere azterlan bat abiaraziko du, besteen laguntza behar duten adinekoak zaintzen dituztenen egoera ezagutzeko, talde horietan gehienak emakumeak direla kontuan izanik betiere.

EAEko baserrietan bizi diren emakumeentzat eta *2004ko landa-eremuko emakumeak* izeneko azterlanaren arabera, "tradiziozko" baserri inguruko emakumearen estereotipoak indarrean jarraitzen du hirian; hala ere, emakume horiek urrutiago daude irudi horretatik. Hauexek dira emakume baserritarren nortasuna eraikitzekeko elementu nagusiak:

- Landa-gunearekin bizitzea identifikatzea, gune horien gizarteratze espezifikoa azpimarratuz.
- Nekazaritzarekin identifikatzea.

Emakume baserritar guztien ezaugarri bat, eguneroko bizitzan eragin handia duena, hurbileko ingurunearen mugikortasuna da.

Rolak tradizioz esleitzeari dagokionez, aldatzen ari da emakumeek euren buruaz duten irudipena. Etxeko lanean eta beste pertsona batzuk zaintzeko lanean, lanak gehiago banatzean islatzen da aldaketa hori, baina ez hainbeste lan horien baterako erantzukizuna bereganatzean. Nabarmentzekoa da emakumerik gazteenek euren etorkizunaren inguruan duten igurikapenak gehiago daude bideratuta baterako erantzukizunera.

Landa-guneetako ekipamenduak eta zerbitzuak eskuragarri izatea dago emakumeek landa-guneen eta hirien artean ezartzen dituzten desberdintasunen oinarrian. Emakume kopuru handi batek onartzen du ekipamenduak daudela, baina askok uste du hobetu egin beharko lirakeela eta herri administrazioak eskaintza diseinatzean kontuan izan beharko lituzkeela landa-guneen berezitasunak.

Nabarmentzeko moduko sektore bat osasun zerbitzuena izango litzateke; kalitatezkoak bai baina gutxi direla irizten zaio: pediatria, ginekologia eta osasun zentroak oro har.

Nagusiki pertsonen zaintzarekin lotutako zerbitzuak eskatzen dira: eguneko zentroak, anbulantzia medikalizatuak eta haurtzaindegiak. Gizarte zerbitzu horiek eskatzen dira eta ongietorriak izaten dira, are gehiago familia tradizionalaren berezko harremanak indarra galtzen ari direneko egungo egoeran; "zaintzari" dagozkion lanak, ordea, gehienbat emakumei dagozkie oraindik ere, ez baitago baterako benetako erantzukizunik: belaunaldi nagusiagoko emakumeek betebehartzat hartzen dute. Bitarteko belaunaldiko emakumeek, aldiz, lan horien erantzukizuna hartzen dute lana eta euren aisialdia bateratzen saiatuz. Horregatik, oso balorazio positiboa egiten dute hori ahalbidetzen dieten zerbitzuen inguruan.

Emakumeen lanaren ezaugarri garrantzitsu bat da gizarte babesik eza. Emakumeek eurek egiten dute ordaindu gabeko lan gehiago gizonek baino, bai etxe barruan, bai kanpoan, baina gainera ordaindutako baina kotizatu gabeko lan gehiago egiten dute, hots, eskubiderik sortu gabe. Lanaldi partzialeko lanak askoz ugariagoak dira emakumeen kasuan, eta horrek ondorioak dakartza eskubideak sortzeari begira. Egoera horien ageriko diskriminazio horiekin batera, ondorioak batera ezagutzen ez direla esan beharra dago.

Nekazaritzak gizartean duen irudia hobetzeko esku-hartzea eskatzen da, eta zehazkiago emakumeek eginikoa, hain zuzen ere jarduera horrek gizartean duen ospe eta onarpenik eza dela-eta. Gizarte irudi horretan, ezaugarri negatiboak lehenesten dira (lan gogorra, etengabeko ordutegiak, oporrik ez, errentagarritasun ekonomiko txikia...) haiek (norberaren konturako jarduera bati lotutako autonomiaren kasua, lanak norberak antolatze modua ematen duena) ezkututzen dituzten ezaugarri positiboek kalterako.

Irudi hori gorabehera, emakume baserritarren lanbide-izaera baieztatzen da. Profesionalizazio horretan, nekazaritza lan-jardueratzat hartzeko joera ikusten da, bere ordutegien araubide bereziarekin, soldatekin, oporrekin... horiek guztiak jarduera horretan dabilen edozeinentzat berdinak, emakume zein gizon izan. Joera horrek hautsi egiten du etxea eta ustiatzea ez bereizteko tradiziozko joera, eta gainera nekazaritzan gehien aipatzen diren alderdi negatiboek kontra ageri da.

Nekazaritzaren jarraipena ez dago arriskuan langintza horretan diharduten emakumeek bertan behera uzten dutelako, baina mugatuta dago emakumerik gazteenek nekazaritzan jarduteko duten interes txikia dela-eta, bai emakume nekazarien alabak direla, bai nekazaritza familiaz guztiz ezezaguna zaien beste emakume gazte batzuk direla.

